

Ekonomia Sozial eta Solidarioa **HEDATZEKO**

zenbait ideia

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II Kongresua

► 2016ko azaroak 10, 11 eta 12, Bilbon



Finantzatzen dute:



Laguntzen dute:



Ekonomia Sozial eta Solidarioa

HEDATZEKO

zenbait ideia

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II Kongresua

► 2016ko azaroak 10, 11 eta 12, Bilbon



REAS Euskadi. Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea.
Venezuela plaza 1, 2 Ezk-Ezk.
48001 Bilbao
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/redes/reas_euskadi



Lege zenbakia: BI-515-2017

Itzulpena: Labayru institutua

Diseinua eta maketazioa: LaBox Marketing y Comunicación

Ilustrazioak: Ania Sáenz de Buruaga

Argazkiak: Erreka multimedia S. Coop.

Inprimaketa: Amaya Digital



Aitorpena-Ez komertziala-3.0 lizentzia beraren pean partekatzea

Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Askatasun osoz kopiatu, banatu eta publikoki jakinaraz daiteke, baldin eta egiletza aitortzen bada eta helburu komertzialeta- rako erabiltzen ez bada. Hori aldatu, eraldatu edo eratorritako obrarik sortzen bada, lizentzia honen pean soilik banatu ahal izango da. Lizentzia osoa.

Lizentzia osorik: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

Urteak daramagu gure burua prestatzen, frogak egiten, proiektuak sendotzen. Milaka ekimen, bizitzaren esparru guztietan, gero eta pertsona gehiagorengatik babestuak, egunero frogatzen dute beste ekonomia bat, beharrezkoa izateaz gain, posiblea dela. Saltoa emateko garaia heldu da, alternatiba bat garela pentsatzeari utziz eta errealitate berri bat bezala eratuz.

Ekonomia sozial eta solidarioaren hedapenaren garaia da.

Ekonomia eraldatzeko garaia da!



AURKIBIDEA



Sarrera

08

Hasiera ekitaldiko hitzak

14

1. ardatza. Ekonomia inklusibo eta demokratikoa

20

2. ardatza. Ekonomia solidarioa izango da, baldin eta feminista bada

30

3. ardatza. Potentziak eta mugak gaindituz. ESSaren ehun produktiboaren eratze, garapen eta eraldaketa

40

4. ardatza. Ondasun Komunak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa

50

5. Ardatza. Herritarren bat-egitea eta ESS: egitura kooperatibo zabalak, ESS-ren eraikuntzan

60

6. ardatza. Trantsizioak mundu iraunkorrako bateko ekonomia berrietarantz

70

Manifestua

82

Amaiera ekitaldiko hitzak

84

Kongresua zerbaitan

86

SARRERA



Dokumentu hau 2016ko azaroaren 10, 11 eta 12an Bizkaia Aretoan (Bilbo) antolatutako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresuan egindako lan eskeraren emaitza da. REAS Sareen Sareak eta REAS Euskadik sustatu eta antolatu zuten Kongresua, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatearen lankidetzarekin, eta Eusko Jaurlaritzaren (Lankidetzarako Euskal Agentziaren bidez) eta Bilboko Udalaren (Bilbao Ekintzaren bidez) diru-laguntza jaso zuen ekimenak.

Kongresua definitzeko eta diseinatzeko prozesua taldean garatu zen; hain zuzen ere, partaidetzan eta lankidetzan oinarriturik, hainbat arlotako erakunde eta pertsonen parte hartu zuten prozesu horretan. Kongresuan 450 bat lagun elkartu ziren, eta sei ardatz tematiko landu zituzten; ardatz horiek ekonomia solidarioaren mugimenduaren hiru ekintza-dimentsioei zegozkien hainbat gai bildu zituzten: jarduera ekonomikoa, autogestioan oinarrituriko ekimen sozio-ekonomikoen garapena; jarduera sozio-politiko, salaketa, sentsibilizazioa eta beste gizarte-mugimendu batzuekiko aliantza, kapitalismoaren aurreko erresistentzian eta egiturazko eraldaketen sustapenean; eta jarduera politiko instituzionala, ESSn oinarrituriko aldaketa bideratzeko politika publikoen sustapena.

Hauek izan ziren Kongresuaren ardatz tematikoak:

- 1.** Ekonomia demokratiko eta inklusiboa.
- 2.** Ekonomia solidarioa izango da, feminista baldin bada.
- 3.** Potentziak eta mugak gaituz. Ekonomia sozial eta solidarioaren ehun produktiboaren eratzea, garapena eta eraldaketa.
- 4.** Ondasun komunak eta ekonomia sozial eta solidarioa.
- 5.** Herritarren bat-egitea eta ekonomia solidarioa: egitura kooperatibo zabalak, ESSren eraikuntza.
- 6.** Trantsizioak mundu iraunkorrago bateko ekonomia berriarantz.

Ardatz horietako bakoitzaren baitan hiru lansaio antolatu ziren:

- 1. saioa.** Motibazio hitzaldia eta Kongresuko ardatz bakoitza dinamizatzeko ardura zuen taldeak landutako dokumentuaren aurkezpena, non zehazten baitziren ardatz bakoitzeko eztabaidak eta edukiak.
- 2. saioa.** Inspirazio ekimenen mahaia; mahai horietan, ardatz bakoitzean planteatutako erronkei eta eztabaidei praktikan heldu dieten inspirazio esperientzien berri eman zen.
- 3. saioa.** Proposamenak eta estrategiak taldean eraikitzeko tailerra.

Horiez gainera, bestelako jarduerak prestatu ziren, elkarrekiko hurbilketa errazteko: adibidez, meeting gunea, Kongresuko parte-hartzaileen arteko topaketa formalak nahiz informalak ahalbidetzeko; elkarrizketak, ardatz tematikoetan modu espezifikoa landu ez arren ESS sareentzat garrantzizkoak direlako adierazgarriak ziren hainbat gairi buruz jarduteko; ESSKutxa, non aurkeztu baitziren 10 esperientzia, Kongresu guztian zehar Bizkaia Aretoko atarian erakusgarri jarritako makro-collagekoen artetik hautatuak.

Bestalde, gure asmoa zen Kongresu hau, gogoetarako eta proposamenak egiteko espazioa ez ezik, ekintzarako topagunea ere izatea. Hala, bi egun definitu genituen erreibindikazio ekintzak egiteko: egun horia, "Ekonomia Solidarioa, mugak hautsiz. Ongi etorri errefuxiatuak!", eta egun morea, "Ekonomia Solidarioa, emakumeen aurkako indarkeria ooren kontra".


Txostenari berari dagokionez, honela antolatuta dago: Kongresuaren hasiera ekitaldiko hitzaldiak jaso dira lehenik, eta, jarraian, Kongresuko sei ardatz tematikoetan egindako lanetik eratorritako gogoetak, proposamenak eta estrategiak. Azkenik, Kongresuaren amaierako manifestua eta amaiera ekitaldiko hitzaldiak txertatu dira, baita atal labur bat ere, parte-hartzaileen profilari eta azaroko hiru egun haietan egindako jardueri buruzko datuekin.

Sarrera hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Kongresua aurrera ateratzen lagundu duten guztiei, egindako ahaleginagatik eta lanagatik: Kongresuko jardueretan parte hartu duzuen 450 lagunei, eta Kongresua antolatzen eta gauzatzen lagundu duzuen 200 laguntzaileei; ardatzen edukiak diseinatu dituzten taldeei; hizlariei; talde eraikuntzako tailerren eta topaguneen (elkarrizketak, ESSKutxa, meeting gunea...) dinamizatzaileei; beharrezko zerbitzuak eskaini dizkiguten ekonomia solidarioko enpresei; Bizkaia Aretoko lantaldeari, bitarteko teknikoak jartzeagatik, eta gure jarduerak gauzatzeko espazioak txukun eta prest izateaz arduratu direnei.

REAS Euskadiren talde eragileari eskertu nahi diogu, halaber, prozesu guztiari logika emateko egindako lan eskerga: Saioa Baci-

galupe, Nando Consuegra, Ricardo Antón, Marían Díez, Amaia Naveda eta Carlos Askunze, eta Zaloa Pérez, zeinak izan baitzuen Kongresua koordinatzeko ardura. Eskerrik asko, era berean, REAS Sareen Sarearen Kontseilu Konfederalari, eskainitako laguntzagatik, bai eta logistika antolatzeke ardura hartu zuen REAS Euskadiko talde teknikoari ere.

Kongresua definitzeko eta diseinatzeko prozesua taldean garatu zen.




Era berean, eskerrik berezienak eman nahi dizkiegu REAS Euskadiko erakunde bazkideetako emakumeei, batez ere, beren lan boluntarioaren bidez hiru egunetako logistikari eusteko egindako ekarpenagatik.

Azkenik, ez ditugu ahaztu nahi gure ardurak beren gain hartu dituzten kide guztiak, guk hiru egunez topaketan parte har genezan ahalbidetu zutelako gure etxe eta lantokietan gure ordez jardunez.

Horiei guztiei, beraz...

Eskerrik asko, gracias, gràcies, gracias, grazas, thank you, merci.

EGITARAUA



Osteguna 10

09:15 – 14:00 Tokiko Politika Publikoei buruzko mintegia: Lurraldeak ekonomia solidariotik eraldatu (*kongresu aurreko jarduera*).

15:30 Hasiera hitzaldia. Aurkezlea: Zaloa Pérez (REAS Euskadi).

▶ **Aurkezpen eta ongi etorria:** Blanca Crespo (REAS Red de Redes), Marian Díez (REAS Euskadi) eta Juan M^a Aburto, Bilboko Alkatea.

▶ **Hitzaldia:** *De la Economía Social y Solidaria al post capitalismo: posibilidades, desafíos y falsas promesas*. César Rendueles.

17:00 Atsedenaldia







17:30 Ardatzen 1go saioa. Hitzaldi eragingarriak.

1. ARDATZA	<i>"Lanaren eta jardueraren antolaketarako jarraibideak ekonomia inklusibo eta solidario batean"</i> . M ^a Luz de la Cal (UPV/EHU).
2. ARDATZA	<i>"Bizitza jasangarriak ekonomia solidario batean, utopia edo eraikuntzan dagoen prozesua?"</i> . XESeko Feminismoen batzordea eta REAS Euskadiko EkoSolFem.
3. ARDATZA	<i>"Ekonomia sozialaren erronka eta zalantzak (Arrasateko kooperatibismoaren kasutik abiatuta)"</i> . Igor Ortega. Lanki Ikertegia (Mondragón Unibertsitatea).
4. ARDATZA	<i>"Beste ekonomia batzuen eraikuntzan komunek daukaten garrantzia"</i> . Ángel Calle Collado (Comunaria) eta Nuria Alonso Leal (Fundación Entretantos).
5. ARDATZA	<i>"Irismen handiko egiturak: eskalabilitatearen erronka ekonomia sozial eta solidarioan"</i> . Ruben Suriñach (Opcions aldizkaria).
6. ARDATZA	<i>"Energiak trantsizioen hasieran"</i> . Orzi Akizu, ingeniari, ekodiseinu irakaslea eta ikertzailea (UPV/EHU).

19:30 Jardunaldiren amaiera

Ostirala 11

9:30 Ardatzen 2. saioa. Esperientzia-mahaiak.







	1. ARDATZA	David Tellería Herrera, Peñascal S. Coop. José María García Bresó, Fundación Traperos Emaús. Irene Escorihuela Blasco, Observatorio DESC.
	2. ARDATZA	Mónica Díaz López, Madrilgo Udaleko zainketa plana. Madrid ciudad de los cuidados. Ana Muñoz Guardeno, IACTA Socio-jurídica. Malu Egiluz Apoita, Etxalde. EHNE Bizkaia.
	3. ARDATZA	Elisenda Vegué Gisbert, Altres Economies, Barcelona Activa. Adela Trasierra, Agresta S. Coop. Xavier Gallofré, Xarxa Gedi. Pablo Aretxabal, Ner group.
	4. ARDATZA	José Luis Fernández Casadevante, Kois, Garua. Sarai Fariña eta Teresa de la Fuente Espinosa, Les Espigolaores. Laura Arroyo Escudero, Talaveruela de la Verako alkatea (Cáceres).
	5. ARDATZA	Jordi Rojas, Mes Opciones. Rosa Gulias, Ekhi moneta soziala. Penélope Valero, Kolektivos del parque Alcosa.
	6. ARDATZA	Gabriela Vázquez. Economía solidario eta elikadura burujabetzako lan prozesua. Mirene Begiristain. UPV/EHU. David González. Sustraiak Habitat Design.

11:30 Kafe-atsedenaldia

12:00 Meeting gunea: Meeting espazioa tresna egokia da parte-hartzaileen arteko topaketa formalak eta informalak egiteko. Erakunde batzuek itunduta zituzten zenbait topaketa, baina, akreditatzeko unean, espazio bat prestatu eta metodologia bat egongo da, topaketak gai batzuen inguruan egituratzeko, eta gehien interesatzen zaizkizuenetan izena emateko.

13:45 Bazkaria

15:30 Ardatzen 3. saioa. Lanketa kolektiborako tailerra.

	1. ARDATZA	<i>INCYDE Iniciativas de Cooperación y Desarrollo dinamizatzen du</i>
	2. ARDATZA	<i>equipare Koop. elk. txikiak dinamizatzen du</i>
	3. ARDATZA	<i>Colaboratorak dinamizatzen du</i>
	4. ARDATZA	<i>Comunariak dinamizatzen du</i>
	5. ARDATZA	<i>Isa Álvarez, EHNE Bizkaiak dinamizatzen du</i>
	6. ARDATZA	<i>Sustraiak Habitat Design-ek dinamizatzen du</i>

18:00 Atsedena

18:30 Hitzaldia. ESSaren hedapenaren erronka eta gaitasunak. Magdalena León eta Jean Louis Laville. Aurkezlea: Juan Carlos P. de Mendiguren (Hegoa Institutua eta REAS Euskadi).

20:30 Jardunaldiaren amaiera

Larunbata 12

10:00 Elkarrizketak (6 aldi berean).

Ardatz tematikoetan ukituko ez diren, baina ekonomia sozial eta solidarioko sareentzat duten garrantziagatik edo euren gaurkotasunagatik garrantzitsuak diren zenbait gai buruz mintzatzeko, beste espazio bat ireki dugu.

1. Udalgintza eta ekonomia sozial eta solidarioa
2. Erosketa publiko arduratsua eta bidezko merkataritza
3. Ekonomia sozial eta solidarioko prestakuntza eta ikerketa
4. Tokiko garapenean esku hartzeko estrategiak
5. Ekonomia solidarioa eta elikadura-burujabetza
6. Komunikazioa eta ekonomia sozial eta solidarioa

11:30 Kafe-atsedenaldia

12:00 #ESSkutxa: Kongresua ospatuko den eraikinaren sarreran erakusgai egongo diren esperientzia guztietatik, 10 aukeratuko dira, euren izaera berri-tzaileagatik, errepika daitekeen praktika on bat delako edo hedapenaren ideia zentrala ordezkatzan dutelako. Osoko hitzaldi batean partaide guztiei aurkeztuko zaizkie.

13:45 Bazkaria

15:30 Bukaera hitzaldia

- ▶ **Hitzaldia:** *Hazañas de los malos tiempos*. Cristina Morano.
- ▶ **Azken manifestua.**
- ▶ **Itxiera hitzak.** Carlos Askunze (REAS Euskadi eta REAS Red de Redes).

Aurkezlea: Marta Senz (Sartu Taldea eta REAS Euskadi).

17:30

Jardunaldiaren amaiera

20:00

Amaierako jaia (Hika Ateneo, Ibeni kaia 1, Bilbo).
Luncha, musika, ezustekoak, dibertsioa eta askoz ere gauza gehiago...



EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN II. KONGRESUAREN HASIERA EKITALDIKO HITZAK

► Blanca Crespo
(REAS Sareen Sarea)

Arratsalde on, eta eskerrik asko etortzeagatik.

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarearen izenean, ongietorria egin nahi dizuegu Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresura, baita hemen egoteagatik eskerrak eman ere. Eta ez soilik zuei, baita zuek gaur hemen egoteko bidea eman duten guztiei ere, etxean eta lanpostuetan zuen ardurak beren gain hartuz aukera ahalbidetu dutelako, azken batean, topaketa honek iraungo duen 3 egunetan gurekin egon zaitezten. Kongresuko ardatzetako batek dioenez, ekonomia solidarioa izango da, baldin eta feminista bada, eta, jakin badakigunez, feminismoei esker ari gara ekonomian eta bizitzan ezinbestekoak diren erreprodukzio eta zaintza lan horiei erantzuten eta horiek pixkanaka dagokion neurrian aintzatesten. Ez dezagun ahaztu, beraz, eta eman diezazkiegun eskerrak Reas Euskadiri eta hainbat hilabetez lanean jardun duen taldeari, haiei esker ere baikaude gaur hemen, esku artean halako programa erakargarria dugula. Eskerrik asko!

Gure hegaldia hasi aurretik, dena den, elezahar bat kontatu nahi dizuet, oinak lurrean ditugula:

Guaraniak kontatzen dutenez, izugarritzko sutea sortu zen behin oihanean. Animalia guztiek ihes egin zuten, su beldurgarria zela eta. Halako batean, jaguarrak kolibria ikusi zuen bere buru gainetik hegan igarotzen... kontrako norabidean; alegia, sua zetorren aldera.

Harritu egin zen jaguarra, baina ez zen gelditu. Handik berehala, berriro ikusi zuen kolibria, baina, oraingoan, bera zihoan norabide berean. Behin eta berriz ikusi zuen txori txikia joan-etorri horretan, harik eta, azkenean, galdetzea erabaki zuen arte, portaera xeblere samarra zela iritzi:

- Zer zabilta, kolibri? -galdetu zion.

- Aintzirara joaten naiz -erantzun zion txoriak-, ura hartzen dut mokoarekin, eta su gainera botatzen dut, sutea itzaltzeko.

Jaguarrak irribarre egin zuen.

- Burutik eginda zaude! -esan zion-. Zer uste duzu, zure moko txiki horrekin zuk bakarrik sutea itzaltzea lortuko duzula?

-Tira -erantzun zuen kolibriak-, nik nire partea egiten dut...

Eta, hori esanda, aintzirara alde egin zuen, ur gehiagoren bila.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa, bada, kolibria bezalakoa da: hainbat hamarkada daramatza injustizia eta berdintasunik eza, ekoizpen neurrigabe eta gupidagabea, esplotazioa eta prekarie-tatea eragiten duten suak itzaltzeko ahaleginean..., azken batean, pertsonak nahiz ingurumena kapitalaren zerbitzuko baliabide soil modura erabiltzen dituen sistema bat itzaltzeko ahaleginean.

Kolibri asko gabilta dagoeneko joan-etorrian (sare honetan soilik, 40.000 inguru), eta, horiei esker, garrantzi handiko ekimenak garatzen ari dira ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren esparruetan, milaka laguni alternatibak eskaintzeko. Hain zuzen ere, gure azoka askotan ikusten dugunez, ia sektore guztietan garatzen ari dira alternatibak: finantzak, energia, telefonia, aseguruak, elikadura, etxebizitza, komunikazioa... Eta, horiei esker, gero eta aukera gehiago daude ekonomia solidarioaren baitan bizitzeko.


Baina ez da hori aurrerapen bakarra, alegia, egunerokotasuneko beharrei modu etikoan, solidarioan eta errespetuz erantzuteko bideak zabaltzen hasita egotea; bada beste lorpen bat, are garrantzizkoagoa: bide horiek zabalduz, iruditeria berriak eraikitzen ari gara taldean, iruditeria inklusibo, justu eta iraunkorrakoak eta herritarrek oro har gero eta gehiago babesten eta partekatzen dituztenak.

Kongresu hau, honen aurretik Zaragozan egindakoa, eta, espero dugu, aurrerantzean egingo diren era honetako beste batzuk ere, topagune ezin egokiagoak dira ekimen berriak sortzeko eta bide-orri partekatuak finkatzeko. Jarrai diezaiozun, bada, kolibriaren ereduari, zabal ditzagun hegalak eta eralda dezagun ekonomia, mundua bera eraldatzeko.

Eskerrik asko!



ESS kolibria bezalakoa da: hainbat hamarkada daramatza bere partea eginez.



► **Marian Díez**
(REAS Euskadi)

Arratsalde on, guztioi, eta ongi etorriak gure bigarren Kongresura!

REAS Euskadik ongietorria eman nahi dizue Kongresu honetara. Blancak azaldu duen moduan, hilabeteak eman ditugu Kongresua prestatzen, ilusio handiz eta lanordu eta ahalegin asko eskainiz zeregin horri. II. Kongresuak REAS Aragónen utzitako lekukoa jasoko du, eta, ildo horretatik, gure asmoa da orain bi urte Zaragozan egindako lanari jarraipena ematea, eta, Kongresu honen izenburuarekin bat eginik, Ekonomia Sozial eta Solidarioa hedatzen eta ekonomia eraldatzen laguntzea.

Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago Kongresu hau antolatzen ez dela REAS Euskadi bakarrik aritu: gure erakundeak lankidetzan estuan jardun du REAS Sareen Sarearekin eta ekonomia solidarioaren arloko lurralde eta sektore sareetako erakunde eta pertsonekin. Hasiera-hasieratik izan zen gure helburua Kongresu hau definitzeko eta diseinatzeko prozesua taldean garatzea, partaidetzan eta lankidetzan oinarriturik, hainbat arlotako (ekonomia solidarioaren praktika, ikerketa, gizarte-mugimenduak) erakunde eta pertsonen elkarrekin jardunez Kongresu honi gure jakintza eta esperientzien ekarpena egiteko, bilkurak erantzuna eman diezaien gure askotariko zalantza eta kezkei.

Hala, une hau baliatu nahi dugu 6 ardatz tematikoetako bakoitza lantzeko ardura izan duten taldeetako kideen aurrelanaren berri emateko eta egin duten ahalegina eskertzeko. Talde horiek zehaztu dute ardatz bakoitzean zer eduki landuko ditugun, eta, era be-

rean, motibaziorako hitzaldiak eta esperientziak aukeratu dituzte, baita tailerrak definitu ere. Halaber, egindako lanagatik eskerrak eman nahi dizkiogu Kongresuaren talde eragileari, zeinak egin baitu lan esker, REAS Euskadiren bidez, taldeak koordinatzen eta bilkura honen xehetasun guztiak biribiltzen, une honetan gauden egoerara iritsi arte. Eta, jakina, ez ditugu aipatu gabe utzi nahi REAS Euskadiko talde teknikoak eginkizun horri eskainitako ahalegina eta lanorduak. Mila esker, guztiei!

Edonola ere, azpimarratu nahi dugu lankidetzan ez dela mugatu Kongresua definitzeko eginkizunera; alegia, egun hauetan erabi-

**Gogoeta kolektiboko
prozesuak jarri
nahi ditugu abian,
praktikatik abiatuta eta
ekintzari begira.**



liko dugun laneko metodologia ere lankidetzan oinarritzen da. Hain zuzen ere, Kongresua gogoeta eta eraikuntza kolektiborako gune irekia izan dadin nahi dugu, eta denek izatea entzuteko eta entzunak izateko aukera, ikuspegi eta pentsamolde desberdinetatik eztabaida egiteko aukera, ingurune plural eta ireki bat eratzea, gure emozioei ere tartea eginez baina guztiok norabide berean aurrera eginez, ekonomia sozial eta solidarioaren hedapena xede harturik.

Kongresu honetan landuko ditugun edukiak 6 ardatzetan antolatuta daude:

- ▶ Ekonomia demokratiko eta inklusiboa.
- ▶ Ekonomia feminista eta zaintza ekonomia.
- ▶ Ehun produktibo sozial eta solidarioa eratzea eta garatzea.
- ▶ Ondasun komunak.
- ▶ Ekonomia solidarioa eraikitzeke herritarren bategitea.
- ▶ Ekonomia iraunkor berrietarako trantsizioa.

Gogoeta kolektiboko prozesuak jarri nahi ditugu abian, praktikatik abiatuta eta ekintzari begira, norberaren eta komunitatearen eraldaketa bultzatzeko, Ekonomia Sozial eta Solidarioa eraikitzeke, alternatiba ekonomiko gisa, baina baita gizarte mugimendu eta ekimen politiko eraldatzaile gisa ere. Horretarako, zenbait espaziotan parte hartuko dugu (lan arloan, gizarte-arloan nahiz jaien arloan, esaterako), eta elkar topatzeko eta elkarrekin jarduteko aukera izango dugu. Alabaina, erreibindikazio ekintzetan ere parte hartu ahal izango dugu. Esaterako, gaur, osteguna, erre-fuxiatuei laguntzeko gure egun horia da (Zaloak azalduko digu, gero, gaurko aurreikusitako ekimena), eta, bihar, gure egun mo-rea, emakumeen kontrako indarkeria ororen kontrako borroka eguna.

Azkenik, beste erakunde publiko batzuek emandako laguntza eskertu nahi dugu, funtsezkoa izan baita Kongresu hau antolatzeke. Mila esker, zehazki, UPV/EHUren Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultateari, espazio hau doan erabiltzeko aukera emateagatik. Eskerrik asko, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Gara-



penerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eta Bilboko Udalari, beraien diru-laguntzengatik. Eta, bereziki, Bilboko alkateari, Kongresuaren hasiera ekitaldi honetan gure artean izateko gonbita onartu, eta guri hitz batzuk egiteko prestasuna agertu izanagatik.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa hedatzen hasita dago jada. Abian da, eta gogor dihardu lanean, erakusteko posible dela bestelako ekonomia bat; posible dela ekonomia solidario, feminista, ekologiko, demokratiko, kooperatibo eta etikoa!

Eskerrik asko etortzeagatik!

EKONOMIA SOZIAL
ETA SOLIDARIOAREN
II KONGRESUAREN
6 ARDATZAK

01

EKONOMIA
INKLUSIBO ETA
DEMOKRATIKOA

02

EKONOMIA SOLIDARIOA
IZANGO DA, FEMINISTA
BALDIN BADA

03

POTENTZIAK ETA MUGAK
GAINDITUZ. ESSAREN EHUN
PRODUKTIBOAREN ERATZE,
GARAPEN ETA ERALDAKETA

04

ONDASUN KOMUNAK
ETA EKONOMIA SOZIAL
ETA SOLIDARIOA

05

HERRITARREN BAT-EGITEA
ETA ESS: EGITURA
KOOPERATIBO ZABALAK,
ESS-AREN ERAIKUNTZAN

06

TRANSIZIOAK MUNDU
IRAUNKORRAGO BATEKO
EKONOMIA BERRIETARANTZ



entre las diferentes esferas
(mercado, estado, red don
interrelación entre ellas

Unos pueden llevar a otr
incompatibles entre ellos

Todos nos sirven para re
organización socio-laboral

Hay mucho trabajo útil y ne

s de producción del bienestar
nástica-familiar) o mejoran la

ros y no tienen porqué ser

lantearnos nuestro sistema de

esario que está por hacer

01

EKONOMIA
INKLUSIBO ETA
DEMOKRATIKOA



LANTALDEA:

M^a Luz de la Cal (UPV/EHU-REAS Euskadi) Nando Consuegra (Sartu Taldea) eta Liliana Deamicis (Deixalles Fundazioa)

Egunez egun ikusten dugu nola sortzen duen ekonomia kapitalistak gero eta bazterketa, desberdintasun eta bidegabekeria gehiago, behar besteko kontrol politikorik eta herritarren kontrolik gabe. Inklusiorako gaitasunak «huts» egiten duenean, eredia bera da huts egiten duena. Ardatz horri jarraituz, gaur egun sortzen ari diren hainbat alternatiba aztertuko ditugu: ekonomiaren eta zergaren alorrekoak, antolamenduari eta/edo lanen banaketari eta enpleguaren sorrerari dagozkionak, eta giza eskubideen alorrekoak. Eta, era berean, gogoeta egingo dugu Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegitik egitura mailan zein pertsoekin eta lurraldeekin egiten den lanari dagokionez, ekonomia bidezkoagoa, inklusiboagoa eta iraunkorragoa izan dadin balia ditzakegun proposamenei buruz; izan ere, era horretara bermatuko zaie herritar guztiei beren gizarte eskubideak gauzatzeko aukera izango dutela.



Ekonomia kapitalistaren hedapenak gero eta bazterketa handiagoa dakar eta berdintasunik eza areagotzen du; horren erakusgarri dira langabezia eta prekarietatea, dagoeneko lan merkatuaren egiturazko ezaugarri bihurtuak. Baina baita pobrezia, genero berdintasunik eza, ingurumenaren hondamena edo baliabideen lehiak lurraldeen artean eragindako tentsioak, gerra, gosea, behartutako lekualdatzeak eta abar ere. Ikusmira zabaletik begiratuta, elkarri loturiko askotariko krisiek jartzen dute kolokan ekonomia kapitalistaren eredu hori, eta erakusten dute ez dela iraunkorra eta arriskuan jartzen duela lurreko bizitza bera.

Baina ez dezagun gure burua engaina: kapitalismoaren izateko arrazoia bizitzako alderdi guzti-guztiak eraldatzea eta salgai bihurtzea da, salgai horiek merkatuan trukatzeko, etekina ateratzeko xede bakarrekin. Eta hori lortzeko, gai da gainerako guztia arriskuan jartzeko.

Berdintasunik ezak eta bazterketak giza duintasuna urratzen dute, giza eskubideak urratzen dituzte, giza garapenerako aukera ukatzen baitie pertsoneri.

Agerian gelditu da kontakizun kapitalista gezur hutsa dela –hazkunde etengabea bideratzen duela, aberastasuna sortzen duela eta horrek lanpostuak sortzea dakarrela–. Hain zuzen ere, egiturazko langabezia sortu da, eta ez du berehalakoan desagertzeko itxurarik. Are gehiago: datozen hamarkadei begira egindako proiektio fidagarriek diotenez, lanpostuak murriztu egingo dira, ez Estatuan soilik, maila globalean baizik, batez ere, kualifikazio gutxien duten langileen artean.

Izatez, aspaldi huts egin zuen kontsumoak, enpleguan eta hartatik eratorritako gizarte-babeseko politiketan oinarrituriko kapitalismoaren inklusio ereduak, aspaldi ez baitu funtzionatzen pertsona ororentzat.

Hala, biztanleriaren parte handi bat soberakina da lan merkatuan, ez du tokirik merkatu horretan, eta ez du inork espero ere... Bazterketa baino gehiago, XXI. mendean, kanporatzeak ari dira gertatzen. Eta egoera horren ondorio nagusia da gizarte-dualizazioa gero eta nabarmenagoa izatea.

Gaur egun, inklusiorako nolabaiteko itxaropen bakarra da ekonomia neoliberalak ezartzen dituen baldintza berriak onartzea; hala nola, malgutasuna, mugikortasuna eta baldintza merkeagoak, lehiakortasun gero eta handiagoko testuinguru batean. Prekarietatea larriagotzen ari da, gizarte-egitura gero eta dualizatuago horren bereizgarri gisa. Gero eta zailagoa da enplegua lortzea eta enpleguari baldintza duinetan eustea.

Testuinguru horretan, murriztegiak gertatzen dira gizarte-politika zaharrak. Politika horiek aldatzen ez badira eta gizarte-itun berri bati egokitzen ez bazaizkio, bazterketaren gidari/euskarri bihurtzen dira azken batean. Hain zuzen ere, krisiari egiturazko erantzuna eman ordez, pertsonen aktibazio hutsera mugatu dira ia politika horiek, eta gizarte-bazterketa despolitizatzen lagundu dute.

Aktibazioaren paradigmatik maila kolektibo eta ekonomikotik maila indibidual eta moralera eraman du auzia, eta, maila horretan, pertsonaren gain gelditzen da bere buruaz arduratzeko betebeharrak. Eskubideak bermatzeko betebeharra duen Estatu baten ordez, pertsonen gaineko kontrolera eta eskakizunera begirako Estatu bat sortzen da, eta, langabeziaren harresia zein garaia den kontuan hartuta, aktibazioak arrakasta izateko oso probabilitate gutxi ditu testuinguru horretan. Laneratze politikek, jakina, kontuan hartu behar dute ikuspegi indibidualizatuak, horrek bidea ematen duelako pertsonen beharrei hobeto erantzuteko, haien autodeterminazio eta kontrol ahalmena sendotzen duen neurrian. Baina, era beran, egiturazko politikak hartu behar dituzte kontuan, eskaintzan eragiten dutelako, eta zuzenean esku hartu enpleguaren hobekuntzan eta sorreran.

Horri erantsi behar zaio administrazioaren jardunak, enpresa handien interesen presiopean, izugarri erraztu duela lanaren prezioa merkatzea, lan merkatuan eginiko hurrenez hurrenko erreformen bidez, zeharo ahuldu duelarik elkarrizketa soziala eta areagotu, azken batean, prekarizazioa.

Testuinguru horretan, ekintzaitzaren proposamena agertzen da, nonahi, zeina baita aktibazioaren aurpegirik ilunena. Izan ere, gizarte-politiken porrota aitortzea dakar, argi eta garbi, pertsoneri



beren burua salbatzeko gonbita egiten dien heinean, administrazioak besterik egin ezin duelakoan; hain zuzen ere, enpleguan guztientzako “eserleku” aski ez dagoela ikusirik, pertsonen gonbita egiten die enpresaburu bihur daitezzen eta aurrera egiten saia daitezzen lehia ezin gogorragoko eta inolako babesik gabeko merkatu batean, non lana bihurtzen baita zerbitzu.

Inklusio soziolaboralean diharduten gizarte-entitateek ongi dakite eztabaidaren muina ez direla metodologiak, ezta tresnak ere (orientazioa, prestakuntza, laguntza, laneratze-enpresak, etab.). Pertsonekin aritzeko modu horiek ongi funtzionatzen dute, eta egiaztatuta dago arrakasta dutela; baina ahalmen mugatua dute gizarte-ehuna, enplegua eta gizarte-eskubideak basatiki sunsitzitzen dituen testuinguru honetan. Hori dela eta, egiturazko ikuspegiaz osatu beharra dago haien lana; bestela, haien jarduna aringarri hutsa izango da, eta zentzua galduko dute, neurri batean, beren misioari dagokionez.

Auziaren muina da sistema politikoak ez dituela modu egokian prozesatzen baztertuta edo zaurgarritasun egoeran dagoen biztanleriaren premiak, eta gizarteko talde askok ez dutela ikusten sistema politikoak gizarte-politiken bidez beren premiei erantzuten dienik. Gizarte-haustura gertatzeko arrisku handia dago, bi gizarte izateko arriskua: bata, bizimodu oparokoa, igurikapen eta zerbitzu eskusibo ugari dituen, eta bestea, bizimodu prekarizatukoa, iraupenezkoa, edo, are okerragoa, pobrea. Are

**Bazterketa gainditzeko,
dimentsio anitzeko kon-
ponbideak behar dira.**



gehiago, hiru herenen gizartea deritzonaren irudi soziala dugu aurrez aurre: kanporatua, prekarizatua eta erabat integratua.

Egoera horrek kolokan jartzen du itun soziala; izan ere, herritarrek elkarrekin bizitzearen onurak partekatzea da demokraziaren oinarria, edo, behintzat, hori hartzen da demokraziaren oinarritzat. Baina, une honetan, kapitala metatzeko ez dago soldatapeko lanaren halako beharrik; gero eta gutxiago. Eta eragile guztiek zenbat eta lehenago ulertu hori, lehenago egin ahal izango diogu aurre egoera horri.

Hala, bada, egiturazko langabeziak eta prekarietateak agerian uzten dute, beste fenomeno batzuek gainera, itun soziala eten egin dela, eta gaur egungo ereduarekin gizarteko gero eta sektore gehiago egongo direla kanporatuta edo prekarietate eta zaurgarritasun egoeretara kondenatuta, eta, kasu askotan, are gehiago, batetik bestera igaroko direla txandaka... Beste alternatiba batzuk bilatzean dago gakoa. Berriz pentsatzeko eta gogoetarako unea da, beraz: norabidea aldatzeko unea.

Nola banatu aberastasuna eta barne-baliabideak gizartean, gizarte-berdintasunik eza eta bazterketa saihesteko moduan? Nola finkatu lanaren antolaketa berri bat gure gizarteetan, ekonomia inklusiboa izateko moduan? Zer eskubide bermatu beharko lirake gizarte inklusiboa eta berdinagoa sortzeko?

Enpleguaren krisiari ematen zaizkion erantzunetan, nabarmen ikusten dira beti presente egon diren bi auzi nagusiak:

- ▶ Pertsona da herritartasunaren iturria, eskubideen iturria, eta ez enplegua...
- ▶ Soldatapekoak ez diren askoz ere lan gehiago daude: zaintza lana, sormen lana, lan solidarioa, lan komunitarioa...

Egiaztapen horiek gizarte-eraldaketa sakona eskatzen dute, eta gizartea antolatzeko beste molde batzuetan oinarrituriko itun sozialen gaineko eztabaida jartzen dute mahai gainean. Hona hemen zenbait proposamen eta lan-ildo.

Berriz pentsatu behar dira eredu sozioekonomiko liberala eta haren oinarria. Premien zerbitzuko ondare komun gisa hartu behar da lana. Bizitza, osasuna, hezkuntza eta lana ez dira salgaiak. Berriz pentsatu behar da jabetza pribatua, eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioen aplikazioa hedatu, etekinen metaketarik eza aldarrikatu, baita hazkundera kolokan jarri ere, eta desazkunderaren kontzeptua sustatu. Gogoeta eta arrazionalitate ekonomiko neoliberalala zalantzan jartzeko eginkizun hori zeregin iraunkorra da, zeregin iraunkor indibidual nahiz kolektibo bat. Egunerokotasunean, hurbiltasunean, mikro esparruan koherentzia bilatzea eta aplikatzea da kontua; egiten dugun horren sinesgarritasuna areagotzea eta antolatzea.

Funtsezkoa da soldatapeko enpleguaz haratagoko beste lan-molde batzuen aitortza sozial eta ekonomikoa lortzea. Etxeko lanak eta zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitzarako, baina, gure sisteman, zaintzen eta etxeko lanaren kostua ez da kontuan hartzen prozesu produktiboetan. Horregatik daude emakumeak mende-kotasunezko egoeran gure gizartean: haiek jardun dutelako, tradizioz, era horretako lanetan. Lan horren parte bat ezkutuan dago; hain zuzen ere, zaintzen parte, izebergaren oinarrian dagoena... Hala, beharrezkoa da lan horiek guztiak agerian uztea, komunikatzea eta duintzea, lan horiek aintzatestea, lanaren antolaketa eredu berri batera jauzi egiteko, Estatuak bere gain harturik zaintza lanen eta etxeko lanen ordainketa. Garrantzizkoa da lana beste

**Azken batean,
ekonomia eraldatzai-
leko ekosistemak sortu
behar dira.**



modu batera antolatzen jautsi horretan eragile guztiek hartzea dagokien erantzukizuna, eta, horretarako, beharrezkoa da enpresek bultzatzea lan erreproduktiboa azalera ateratzera, duintzera eta aitortzera, lan horrek parte handia baitu BPGaren barruan eta ezinbestekoa baita gizarteak behar bezala funtziona dezan.

Ildo horretatik, enplegu publikoa sortzearen aldeko apustua egin behar da, ahaztu gabe Estatuak inbertsiogile gisa duen ahalmena. Enplegu publikoa sortzeak langabezia tasak jaitsarazten laguntzen du, eta are beharrezkoagoa da enplegu hori, kontuan hartuta, gainera, behar publiko asko daudela estaltzeko. Espainiako Estatuak antzeko errenta duten beste herrialde batzuekiko alde handia du enplegu publikoari dagokionez, bereziki gizarte-zerbitzuen eta, oro har, gizarte-babeseko politiken arloan.

Hortaz, baliabideen banaketa hobetzea da gakoa, lana, egon, asko baitago. Ildo horretatik, gehiago sakondu beharko da enplegu nitxo berrietan, hala nola, ingurumenaren arloan, energia berriztagarrietan, lanbideak berreskuratzen, etab.

Laneko denbora murrizteak, lanordu eraginkorren kopurua murrizteak aukera ematen du lana jende gehiagori banatzeko. Enplegua banatzeko modu bat da, enplegu orduak enplegatutako biztanleriaren eta langabezia dagoen biztanleriaren artean banatzeko modu bat.

Enplegu politikak kalitatezko enpleguak bermatu behar ditu enpresetan, bereziki korporazio handietan; horretarako, pizgarriak eman behar dizkie enpresei, enplegu lokalagoak edo txikiagoak gara ditzaten, ingurunearen eta ingurunean bizi garen pertsonen onurarako. Zerga abantailetan, kontuan hartu behar da enpleguaren kalitatea, eta garrantzia eman behar zaio merkataritza lokalari, ingurunearen zaintzari, daukaguna zaintzeari, gure inguruko pertsonak enplegatzei... Korporazio handien eredia baztertu, kosta ahala kosta etekinak lortzea baita, itxuraz, era horretako korporazioek aintzat hartzen duten gauza bakarra.

Enpresek ere beren gain hartu behar dute enplegu bermeduna eskaintzeko erantzukidetasuna; ildo horretatik, konpromisoa hartu beharko lukete gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dau-

den pertsonen ehuneko jakin bat kontratatzeko, ezgaitasunak dituzten pertsonekin egiten duten bezala.

Pertsonen bitzitza duintzeko, LAGS igotzea proposatzen dugu -1.000 €-ra, hain zuzen ere-, baita gehieneko soldata bat finkatzea ere. Helburua da soldaten arteko aldeak murriztea eta gardentasun handiagoa bermatzea soldata indizeetan, bereziki korporazio handietan.

Zerga presioa Europako gure inguruko herrialdeetan baino zenbait puntu apalagoa da. Kontuan hartu beharra dago PFEZa dela diru sarrera fiskalen iturri nagusia eta sozietate zerga baino 4 aldiz handiagoa dela. Fiskalitate progresiboa aberastasuna birbanatzeko indar handiko tresna gisa erabili beharko litzateke.

Nazioartean, zergak ezarri behar zaizkie finantza-kapitalaren transakzioei, birbanatzeko baliabideak lortzeari begira (adb.: Tobin Tasa). Era berean, fortuna handien gaineko kontrola areagotu, eta paradisu fiskalak deuseztatu behar dira.

Bestalde, lanaren eta soldataren arteko lotura zenbat eta gehiago arindu, orduan eta aukera gehiago izango dira errenta unibertsal bermatu bat proposatzeko. Testuinguru horretan, bidezkoa dirudi "bizi gutxieneko" saihestezin batzuk finkatzeko funtsezko helburua planteatzea; gutxieneko horiek Estatuak bermatu beharko litzeki biztanleria guztiari, eta ez legozkieke soilik biziraupen fisikoari, baizik eta gizarte eta kultura integrazioari ere.

Era berean, ohartzen gara bazterketa gainditzeko dimentsio anitzeko konponbideak behar direla. Egiturazko ikuspegi horrek kontuan hartu beharko ditu gaur paper huts diren edo, are gehiago, gizarte-sektore jakin batzuek zalantzan jartzen dituzten eskubide eraginkorrak bermatzeko politikak, hala nola:

- ▶ Gutxieneko diru-sarreraren bermea.
- ▶ Ezinbestean gauzatzea etxebizitza eskubidea. Etxebizitzak enplegutik kanporatuta egotearen maila bera hartu du.
- ▶ Energia-pobrezia deuseztatzea.

- ▶ Finantza-bazterketa deuseztatzea.
- ▶ Osasunerako sarbidea bermatzea, biztanle guztiek izan dezaten osasun zerbitzuen eskaintza osorako sarbidea.
- ▶ Pertsona guztiei bermatzea, bizi osoan zehar, bizitza duina izateko eta lanposturako sarbidea izateko beharrezko gaitasunak.

Alabaina hori guztia ere ez da aski izango; premiazkoa da egoera okerrean dauden pertsonen ordezkaritza politikoa eta zuzeneko solaskidetza bermatzea, aldaketaren agenda eratzeko; agenda bat, zeinak bultzatuko baitu itun sozial berri baten aldeko gizar-te-etzabaida. Horretarako, balio handiagoa eman beharko zaie pertsoneri eta gizar-teari, eta pertsonen ahalduntzea ahalbidetu beharko da.

ESSren mugimendua sendotzeko, berrikuntzak egiten jarraitu beharra dago tresnetan; pertsona, talde eta lurraldeekiko lanean; arlo ekonomikoan eta gizarte eta lan inklusioaren arloan, jarduera alternatiboei balioa emanez: garapen komunitarioa; hondakinak biltzea, berrerabiltzea eta birziklatzea; gizarte-enpresa, kooperatiba edo/eta laneratze-enpresak bultzatzea; banku etikoa; elikadura subiranotasuna edo energia subiranotasuna, etab.

Azken batean, ekonomia eraldatzaileko ekosistemak sortu behar dira, eta garapena ekarriko duten neurriak sustatu: entitate eta administrazio publikoentzako prestakuntza; ezagutza bankuak, transferitzeko eta partekatzeak; ESSko ekintzen ikusgarritasuna areagotzea; elkarrizketa guneak sustatzea; sareko lana... Horretarako, garrantzizkoa litzateke, halaber, administrazioak ESS hedatzeko planak eta neurriak bere gain hartzea eta bultzatzea.

Ildo horretatik, administrazio publikoek erabakimen handiagorik sustatu behar dituzte europar zuzentaraua aplikatzeko merkatu erreserba eta klausula sozialak.

Hala, bada, REASEk –Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea– eta sare hori osatzen dugun entitateek erronka horiek geure gain hartzeko unea da; eta, horretarako, gizarte-hausturaren arrisku larriaz eztabaidatu, herritarrek sentsibilizatu eta botere

publikoak ohartarazi beharko ditugu. Gure erantzukizuna da eraikitzen ari garen errealitate sozioekonomikoen berri ematea, baita ekonomia inklusiboagoa eraikitzeko deskribatu ditugun proposamenak eta beste hainbat proposamen zabaltzea ere. Baina, horretarako, gure lan ahalmena sendotu beharko dugu, barne-dinamikari dagokionez nahiz aliantzen artikulazioari dagokionez:

- ▶ REASen agendan arlo ekonomikoan eta sozialean eragiteko lantalde edo batzorde bat eratu.
- ▶ ESSko entitateen arteko lankidetzak sendotuz.
- ▶ Gure inguruan gizarte-ikuskaritzari balio berritua emanez, tresna horretan eta haren irizpideetan nahiz balizko homologazioan sakonduz.
- ▶ Gizarte mugimenduen, sindikatuen eta ESSren arteko lankidetzarako oinarriak finkatuz, aberastasuna banatzeko alternatibak eraikitzen lagunduko duten arlo komunak lantzeko. Horretarako, batzen gaituen horretan aurrera egin beharko dugu, baita sareko lana sendotu eta interes komunari lehentasuna eman ere.

Azken batean, zera proposatzen dugu, laburbilduta:

1. Kalitatezko enplegu politika publiko nahiz pribatu berri bat sustatzea, REAS gisa, beste gizarte-eragile batzuekin batera.
2. Baliabideen banaketa ekitatiborako nazioarteko fiskalitatea sortzearen eta ezartzearen alde lan egitea.
3. Zaintza duintzearen beharra ikusgarri egiten, komunikatzen eta aitortzen duten ekimenek babes publikoa –hau da, pertsona eta entitate nahiz administrazio publikoen babesa– izan dezaten sustatzea, lanaren kultura berri bat sortzeko.







LANTALDEA:

Daniela Osorio (XES), Miriam de Leciñana Mediavilla (REAS Euskadi), Yolanda Jubeto (Hegoa) eta Zaloa Pérez (REAS Euskadi).

Ekonomia Sozial eta Solidarioak (ESS) eta Ekonomia Feministak (EF) kritikatu egiten dute, biek, nagusi den sistema ekonomikoa, bai eta sistema horrek errealitatea interpretatzeko oinarri hartzen dituen hipotesiak ere. Kritika horren bitartez, “beste ekonomia bidezkoago bat” eratzearen alde egiten dugu; elkarren mendekotasunean, elkarrekikotasunean, jardunbide demokratiko, parte-hartzaile eta gardentasunekoetan oinarritutako beste harreman ekonomiko batzuen alde, pertsonen arteko zuzentasuna izanik gure jardunbidearen ardatz zuzendaria eta garrantzia emanez Bizitzarako beharrezkoak diren lan guztiei.

Lotura sendoak daude, beraz, bi ekonomia kritiko horien artean, eta bide horretatik jarraitu nahi dugu aztertzen eta ikertzen, ESS indartuko duten ekarpen berriak sortzeko, baina, era berean, gure jardunak feminismoetatik abiatuta sendotzeko, eta, era horretara, horien gaitasun eraldatzailea sendotzeko helburuarekin.

Lan teoriko batetik abiatuta, baina euskarri horietan oinarrituta lan egiten duten ESSaren alorreko esperientziak eta ekimenak agerraraziz, ESS eta Ekonomia Feministaren arteko harremanak eta kontzeptuak sendotzen ahaleginduko gara, eta, orobat, ahaleginduko gara gogoeta egiten bi horien arteko elkarriketa egituratzen jarraitzeko moduari buruz, gizarte ez sexistak eta heteropatriarkalak eraikitzeko helburuarekin

Ekonomia sozial
eta solidarioaren

HEDATZEA EL DESPLIEGUE

de la economía social y solidaria

ESSaren II KONGRESUA • II CONGRESO de ESS

www.esskongresua.net

Democracy enables better governance of the economy. The time to transform the economy is now. The time to transform the economy is now. The time to transform the economy is now.

2016ko AZAROAK 10, 11 eta 12 • 10, 11 y 12 NOVIEMBRE de 2016
Bizkaia Arestea UPV/EHU • BILBAO

Ante las violencias económicas machistas ♀
EKONOMIA FEMINISTA eta SOLIDARIOA

ongresua

Es la hora de transform
la. É hora de transfor
omiel. It's time to tra

12 • 10, 11 y 12 NOV
a UPV/EHU • BILBAO

ESSaren II KONGRESUA • II CONGRESO de ESS



Ekonomia Feminista –aurrerantzean, EF– bat dator Ekonomia Sozial eta Solidarioak –ESS– ekonomiaren kontzeptuaz egiten duen formulazio berriarekin, zeinaren arabera baitira pertsonak eta haien bizi kalitatea zentro analitikoa eta erabakiak hartzeko zentroa. Ekonomia feminista aitzindaria izan da, ekonomia ekologikoarekin batera, pentsamendu ekonomiko eraldatzailearen paradigma berri gisa bizitzaren iraunkortasuna proposatzen. Lotura estua dago, beraz, bi joera horien artean, eta lotura horiek ikertu beharko dira ekonomia kritikoa sendotuko duten ekarpen teorikoak eraiki nahi badira, baina baita ESSren baitako erakunde eta entitateen jarduera sendotu nahi bada ere, ekarpen eta ikuspegi feministak atxikiz haien eraldaketa ahalmena indartzeko.

EFk planteatzen du ezin bizi gaitezkeela bizitza ahalbidetzen duten bi mendekotasun materialei –hau da, planetaren muga fisikoei eta bizitzari eusteko beharrezko denbora eta eginkizunei– bizkar emanda, bizitzari alderdi guztietatik erasotzen dion sistema batean; hau da, funtsezkoa da gure gain hartzea gure bizitzen ekomendekotasuna eta elkarrekiko mendekotasuna. Eta, horrez gain, gogoeta eginarazten digu sistema hegemonikoari dagozkion zenbait alderdi eta elementuri buruz, hain zuzen ere, ESSren jarduerak espazio alternatiboetan erreproduzitzen dituen alderdi eta elementuei buruz, hala nola, sexuaren araberako lan banaketa eta produkzioaren eta erreproduzioaren arteko bereizketa.

**(Hetero) patriarkatua-
rekiko konfrontazioa
funtsezkoa da alternati-
bak eraikitzeko.**



Baina nola pentsatu merkatu kapitalista heteropatriarkalak euskarri dituen sistema sozioekonomiko baten erdigunean bizitza –zentzu zabalean– jarriko duten alternatibak? Nola eman nagusitasuna ekonomia antolatzekeo bestelako molde batzuei, dirua oinarri bakartzat hartu gabe? Nola lortu historian zehar arlo pribatuari edo logistikoari zegokion elementutzat hartzen zen zerbaitek aitortza politikoa eta sozioekonomikoa izatea? Nola lortu bizitza guztiak aintzatestea? Zer baldintza sortu behar ditugu ESS gizarte osora orokortzeko moduko alternatiba bat izan dadin, guztiok bil gaitzan?

Eta bizitzari eusteko ardurak eginkizun feminizatu bat izateari utzi behar badio, nola banatu modu ekitatiboan zaintzen alderdi material eta zehatza? Nola hartu geure gain beren burua zaindu ezin dutenen zaintza? Zer zeregin betetzen dute egiturek –egitura publikoek, pribatuek, Estatuak, komunitateak...–? Nola lortuko dugu gizarte oro har sentsibilizatzea eta zaintza pertsona guztiei dagokien ardura kolektibo bat dela ikusaraztea?

ESSk eztabaida horietan guztietan zer jarrera hartuko duen zehaztu behar du, eta gizarte ez-sexista eta ez-patriarkalak eraikitzekeo proiektu feministari lagundu behar dio, ezingo delako eraiki proposamen alternatiborik emakumeen eta gizonen arteko botere harremanak eta berdintasunik eza eraldatu gabe, eta gorputzen, afektuen eta zaintzen garrantzia azalera ateratzea delako logika kapitalista hausteko errezetarik onena. Arlo askotatik lan egin daiteke eta lan egin behar da ekonomia solidario eta feminista hedatzeko, baina Kongresuan zehar eztabaidarako eta gogoetarako aukeratu ditugun hiru arlo zehatz landuko ditugu hemen.

Politika publikoen bidezko eraldaketa

Bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko estrategia globalak eta paradigma horren zentraltasuna beren gain hartuko duten estrategiak definituz: bizitza sozial, politiko eta ekonomikoaren erdigunean zaintza jarriko duten estrategiak, sistema sozioekonomikoaren baitan eraldaketa sakonak sustatuko dituzten estrategiak, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatuko duten estrategiak, eta modu kolektiboan definituko dituztenak gure bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin erantzunkideak izango diren gizarte eta ekonomia antolatetako ereduak. Eta, era berean, ESSren jardurekin bat eginik komunitate iraunkoragoetarako edo elikadura nahiz energia subiranotasunerako trantsizioa sustatuko duten politika publikoak garatuz.

Hainbat ekimen sortu dira erabaki politikoen muinean bizitzaren iraunkortasuna ezartzeko behar horretatik, “Plan Madrid Ciudad de los Cuidados” planaren (“Madrilgo Zaintzen Hiria Plana”) tanke-rako esperientziak –Madrilgo Alkatezaren proiektua, Osasun, Segurtasun eta Larrialdi Arloak eta Ekitate, Gizarte Eskubide eta Enplegu Arloak gidatua–, eta udal gobernanzako molde berriak definitzeko inspirazio iturri bikainak izan daitezke. Azken batean, politika publikoak diseinatzekeo orduan lehenetasuna jendearen bizi baldintzei ematea da gakoa. Zaintzak ezinbestekoak dira eguneroko bizitza erreproduzitzeko, eta, horrenbestez, funtsezkoak dira guztiontzako hiria eraikitzekeo eta modu zabal eta integralean eragiten diete politikei. Hala, zaintza da, esate baterako, oinezkoentzako hirigune adeitsuagoak planifikatzea, partaidetza eta herritarren autonomia sustatzea, hiri garbiagoak izatekeo neurriak hartzea edo bizikleta erabiltzekeo erraztasunak ematea, ekonomia sozial eta kooperatiboko proiektu iraunkorrak laguntzea, kultura ekitaldi irisgarriagoak programatzea...

Hauek dira, laburbilduta, Madrilen garatutako plan horren helburuak: 1) herritarrek besteak zaintzekeo, besteen zaintza jasotzekeo eta beren burua zaintzekeo oinarritzako baldintzak sortzea; 2) ekitatea sustatzea zaintzak garatzeko, genero ikuspegitik nahiz

lurraldearen ikuspegitik edo berdintasunik eza dagoen beste arlo batzuen ikuspegitik (gizarte-klasea, etnia, etab.); 3) garapen komunitarioa bultzatzea erantzunkidetasunaren ikuspegitik; eta 4) erakunde arteko espazioak sustatzea zaintza espazio gisa, herritarren premia identifikatzeko eta premia horiei erantzuteko.

Planaren baitako ekimenak abian jartzeko, zeharkako plangintza egiteko lantalde bat sortu da, udal gobernuko arlo guztietako teknikariek, oposizioko alderdi politikoen ordezkariak, kanpo aholkulariek eta auzo elkarteak osatua. Talde horren lehen eginkizunetako bat da Hiriko Zaintzen Mapa eraikitzea, mapa horren bidez Madrilen ematen diren zaintza guztiak identifikatzeko, ikuspegi global eta integratu batetik; mapa horren bidez, agerian utzi nahi dira gaur egun indarrean dauden baliabideak zer alderdi ez dituzten estaltzen, zer eremurik behar duten arreta gehien, zer aliantza dauden gizarte-ehunarekin eta bestelako administrazioekin, etab.

Era horretako proiektuek aurrez aurre aurkitzen duten erronka nagusietako bat zeharkakotasuna da, eta, erronka hori gainditzeko, lan dinamika oso zatikatuak alboratu beharra dago. Status quo irauli, eta gobernu arloen arteko, kultura profesionalen arteko edo “nire proiektuaren” eta “zure proiektuaren” arteko liskarrak kudeatu.

Bigarren erronka aipagarria da hibridazioa lortzea, hainbat mailatan. Alde batetik, zeharkako lantalde hibridoak sortu behar dira, askotariko profil profesionalak, organizazio kulturak, jardunbideak, abiapuntuko puntu ideologikoak, etab. bilduta. Bestalde, proiektua “behetik gora” eraiki behar da, eta horrek esan nahi du aliantzak sortu beharko direla, eta herritarrekiko komunikazio eta partaidetza bideak ezarri, baita ekimen publiko-pribatuko eredu batetik eredu publiko-sozial batera jauzi egin ere, irabazi asmorik gabeko hirugarren sektorearekin eta gizarte-mugimenduekin aliantzak eratuz, zeinak eskatzen baitu udal askotan luzaroan indarrean egon den funtzionamendu logika bat haustea.

Eta azken erronka da erakunde antolaketa berri bat sortzea; udal gobernantza ulertzeko eta gauzatzeko molde berriak lantzea, politika berri bat... zeinak eskatzen baitu, aldi berean, administrazioak beraiek eraldatzea.

Gure antolakundeak eraldatzea, ekonomia solidario eta feminista eraikitzeko

Nahiko uste orokorra da ESSren barruan gai horiek oso landuta daudela eta azken urteetan diskurtsoan nahiz maila sinbolikoan aurrerapen handiak egin direla; baina eguneroko praktikak begien bistan jartzen du oraindik asko daukagula egiteko.

Izan ere, oraindik ez dira azaleratzen hainbat kausa iraunkor izan daitezkeen ahalbidetzen duten zereginak (inurri lana, askotan emakumeek egina), ekonomia solidarioko emakumeen lanaldi hirukoitza (merkatua, erreprodukzioa eta militantzia), ikuspegi oso produktibista darabilgula gure proiektu askotan eta diskurtsotik at utzi ohi dugula erreprodukzioaren esparrua. Sarea oro har batzarren arabera egituratzen den arren eta, itxuraz, egitura horizontalagoak darabiltzagun arren, erlazio hierarkiko, heteropatriarkal eta belaunaldien arabera oinarritzen da, oraindik ere.

Egoera hori gainditzeko, funtsezkoa da azalera ateratzea kontrerasan etengabe hori, eta balioa ematea arlo produktiboaren/erreproduktiboaren arteko erlazio hierarkikoa hausten duten eta antolakundearen motor bakartzat alderdi produktiboa hartzeari uzten dioten esperientziei.

Ildo horretatik, Bizitzaren Iraunkortasunaren paradigmatik antolakundeak aldatzeko prozesuak abian jartzeko oinarria eskaintzen digu. Nolanahi ere, paradigma hori ez da definitzen erraza; eta dimentsio anitz biltzen ditu, baita elkarrizketuriko askotariko iraunkortasunak ere –ekologikoa, humanoa, soziala–. Nola gauzatu, hortaz, proposamen hori ESSren baitako antolakundeetan? Nola eraiki bizitza eta herritarrak ardatz hartuko dituzten antolakunde ez-patriarkalak? Zer tresna ditugu antolakundeei behatzeko eta horien analisirako? ESSren baitako antolakundeetan kontuan hartzen al dugu erantzunkidetasuna bizitzari eusteko beharrezko euskarri modura? Eta, erreprodukzio materialaren ikuspegitik, zer eta nola ari gara produzitzen, banatzen?

ESSren mugimenduan, ESSren baitako antolakundeetan ildo hori jorratzeko espazioak eta gai horri buruzko diskurtsoa eraikitzeke espazioak sortzen ari dira. Esperientzia aipagarriak dira, alderdi horretatik, ekoSolFem –REAS Euskadiren Ekonomia Solidario eta Feministako lantaldea–, XESko –Xarxa d’Economía Solidária– Feminismoen Batzordea eta REAS Aragónen ESSko Zaintza eta Ekonomia Feministako Taldea.

Bestalde, IACTA aholkularitza juridiko eta gizarte-eraldaketako kooperatiba akuilu eta inspirazio iturri ezin hobea izan dugu gure antolakundeetan ezar ditzakegun tresnei eta prozesuei buruzko gogoeta egiteko, antolakundeen esperientzia bera abiapuntu hartuta. IACTA sozio-juridikoa 2012an sortutako irabazi asmorik gabeko lan kooperatiba bat da, eta xede hau du: abokatutza bokazio sozialetik gauzatzeari, interes kolektiboaren eta gizarte-eraldaketaren zerbitzura. Haren organigraman eta 2016an onartutako kudeaketa planean, neurri sorta bat agertzen da lan produktiboa eta erreproduktiboa modu ekitatiboan banatzeko, gatazka egoerei aurrea hartzeko eta une oro kooperatibaren finantza-ekonomia egoeraren berri sakona izateko.

Kooperatiba horren egiturak lau lan arlo ditu euskarri, batzarrak gainera –zeina baita kooperatibaren erakunde politikoa–: 1) Kudeaketa eta zaintza batzordea, arlo ekonomikoaz ere arduratzen dena eta kooperatibaren ikuspegi globala duena; 2) Proiektuen batzordea, zeinak eskaintzen baitu abian diren proiektuen ikuspegi globala; 3) Komunikazioa eta IKTak; eta 4) Zuzenbidearen arlo teknikorako batzordea (atzerritartasuna eta administrazioa, lan arloa, arlo zibila, arlo penala...).

Antolakuntza printzipioei dagokienez, honako printzipio hauei jarraitzen die, besteak beste: lanpostuen txandaketa, “dena idatziz” jasotzeko ideiarekin araberako protokoloak sortzea eta kooperatibaren batzarrean nahiz lan batzordeetan egin nahi diren eztabaida orotarako oinarritzko dokumentu bat prestatzea.


Neurri horien guztien helburua da lantaldeetan erantzunkidetasunez ezartzea, kontuan harturik zer lan mota egin behar den eta lana egin behar den pertsonen profila eta enpatia maila. Dibertsitatea ondare komun bihurtzea da erronka, eta, hain zuzen

ere, dibertsitate hori izatea batzen gaituena, eta ez elkarrengandik urruntzen gaituena. Oinarri komunitik abiatuta, dibertsitatea bultzatu behar dugu.

Kongresuko ardatz honi buruzko azken saioan, gure antolakundeen gaineko gogoeta egin genuen: landu beharreko edukiei eta abian diren prozesuak lantzeko eskuragarri ditugun tresnei buruzko gogoeta, baita gure antolakundeek ardatz gisa bizitza hartzeko jauzia egiteari begirako aldaketa prozesuak errazteko elementuei eta oztopoei buruzkoa ere. Adibide gisa, honako tresna hauek identifikatu ziren:

- ▶ Antolakundearen prozesu eta jardueren planifikazioa, lan guztiak eta horiek egiteko denborak nahiz banaketa kontuan hartuta. Dagoeneko, badira ikuspegi feminista atxikita duten planifikazio prozesuen jarraipenerako eta ebaluaziorako zenbait tresna (behaketa fitxak, erregistroak...).
- ▶ Antolakundeko emakumeak ahalduz zeari begirako ekintzak eta estrategiak bultzatzea.
- ▶ Bizitza pertsonala eta lan bizitza uztartzeko neurriak, haurtzarotik/mendekotasunetik haratago eta familia tradizionalaz bestelako ereduak kontuan hartuta (askotariko baimenak).

Beharrezkoa da ESSren mugimenduan bertan aliantzak sortzea.



- ▶ Antolakundearen baitan lanak erantzunkidetasunez banatzeko neurriak (lanpostuak txandakatzea, lan kolaboratiborako tresnak...).
- ▶ Zaintzak eta afektuak aintzat hartzea (Afectivas bilerak #Lo-Relacional #meetcommons bilerak).
- ▶ Prozesuek gure antolakundeetan dituzten inpaktuen jarraipena (gizarte-ikuskapena).
- ▶ Gure produktu eta zerbitzuei balioa emateko modu bakartzat prezioaren logika erabiltzeari uztea.
- ▶ Gure premiak dirurik erabili gabe asetzeko sareak eta guneak sortzea: trukeak, denbora...
- ▶ Antolakundearen arteko lankidetzaren proiektuak sustatzea (merkatu soziala eta bestelako espazio alternatibo batzuk).

ESSren baitako antolakundeetan hainbat prozesu jarri dira abian, eta litekeena da garaia izatea horien berri jasotzeko, horiek sistematizatu eta agerian uzteko, horietatik ikasi eta bide hori urratzen jarraitu ahal izateko.

Irautea eta iraunaraztea, sare eta aliantzen bidez

Patriarkatuarekiko konfrontazioa funtsezkoa da gaur egun indarrean dagoenarekiko proposamen sozial, ekonomiko eta politiko alternatiboak eraikitzeko, eta oraindik ere beharrezkoa da emakumeen berdintasunik eza aitortzea, salatzea eta hari aurka egitea. Horretarako, ezinbestekoa da mugimendu feministak egiten dituen proposamenekin bat egitea eta ESSren mugimenduan bertan aliantzak sortzea.

Azaroaren 11n egin genuen meetingean, hainbat emakume elkar-tu ginen, batzuk ESSren lurralde sareetako talde eta batzordeetan antolatuak, gure antolakundeetan feminismoa bultzatzeko interesak erakarrita. Bilera horretan, agerian gelditu zen toki komun ugari ditugula eta gure artean aliantzak eratzekeo premia dagoela, baina, gure artean ez ezik, baita beste eragile batzuekin ere –hala nola, hedabideekin–, gure antolakundeak, rolak eta estereotipoak aldatzeko erronka handi horri erantzuteko, dibertsitatearen eta prozesuekiko errespetuaren ikuspegitik.

Emakume antolatuen beste mugimendu batzuei dagokienez, Kongresuan ardatz honen eragile gisa aritu zen taldearen aburuz, aliantza esanguratsua eratu beharko genuke landa-eremuarekin eta emakume baserritarrekin. Etxalde-Nekazaritza Iraunkorra mugimenduak –baserritarrek eratua eta nekazaritzarekin lotura duen orori irekia– eta EHNE Bizkaia nekazarien sindikatuak –zeinaren helburu nagusia baita Euskal Herrian elikadura subiranotasuna sustatzea– landa-eremuak hiri eremuekiko oro har jasaten duen diskriminazioa azpimarratu zuten, baita emakume baserritarrek duten garrantzia ere, elikaduran betetzen duten egiteko-gatik, eta haiek hartzen dutelako bere gain, oro har, nekazaritza eta industria eredu globalizatuari aurre egiten dion eredu aldarrikatzen eta defendatzen duten bizimoduak.

Illo horretatik, gutxienez, diskriminazio bikoitza identifikatzen da emakume baserritarren kasuan; emakume izateagatik diskriminazioa, berdintasunik gabeko harremanen eta bizitzako hainbat



arlotako diskriminazioaren ondorioz; eta nekazaritzako langile izateagatiko diskriminazioa, beraien lanak ez duelako behar adinako aitortzarik. Emakume nekazariak jasaten duten berdintasunik eza modu askotara adierazten da, hala nola, lurraren eskuragarritasunaren berdintasunik ezean, lan eskubideetan eta finantzaketan; beraien jakintza eta ekarpen sozial, kultural eta ekonomikoen aitortzarik ezean; lanaren gainkargan; beraien egoera eta premia espezifikoek ikusezintasunean, eta partaide-tza soziopolitiko urriagoan. Eta azpimarratu zen beharrezkoa zela emakume nekazariak ahalduentzeko prozesuak sustatzeko estrategiak eratzea, baita sareko lana eta emakumeen aliantzak sendotzea ere, eta landa-eremuko eta hiri eremuko emakumeak elkarrengana hurbiltzea, beraien helburu komunen aldeko borrokan bat egin dezaten.

Manifestuan adierazi bezala, aitortzen dugun arren prozesu mingarrietatik gatozela, uste osoa dugu iraultza egunerokotasunean egiten dela eta etorkizuna geurea dela, dagoeneko etorkizuna

eraikitzen ari garela, orainetik abiatuta. Ekonomia solidario eta feminista gauzatzen ari da, dagoeneko, baina guztion konpromisoa eta ardura behar ditugu gure erakundeak eraldatzeko. Litekeena da orain arte egindakoa aski ez izatea –funtsezkoa da ikuspegiak batzea eta konbinatzea, botere harremanak izugarri konplexuak baitira–, baina, zalantzarik gabe, geroraezina da. Lan egin dezagun elkarrekin, bada.



03

POTENTZIAK ETA MUGAK
GAINDITUZ. ESSAREN EHUN
PRODUKTIBOAREN ERATZE,
GARAPEN ETA ERALDAKETA




LANTALDEA:

Ana Rosa Lorenzo (Cidania, Rede de Aplicações Sociais S.Coop Galega) Arantza Sáenz de Ugarte (Gizatea-REAS Euskadi), Carlos Clarimon (La Veloz S.Coop), Fernando Sabin (Tangente Talde Kooperatiboa) Ricardo Antón (ColaBora-Bora Koop Elk. Txikia) Victoria Molinero (Mugarik Gabeko Ekonomilariak)

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ehun produktiboak aurrerabide handia izan du azken urteotan. Alabaina, ezinbestekoa da jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat egitea, hartutako posizioak sendotzeko, eta, orobat, hedatzeko balioko duena, modu eraginkorrean zabalduz gizarte osora.

Jauzi hori ematen laguntzen edo zailtzen duten barne zein kanpo aukerak (gaitasunak, tendentziak, egoera faboragarriak...) eta oztopoak (beldurrak, tabuak, larritasunak, estereotipoak, ohiturak, araudiak, paradigma nagusiak...), identifikatzea eta ikertzea da ardatz honen helburu nagusia. Gutako bakoitzaren mugak eta potentziak (pertsonak, erakundeak, merkatu espezifikokoak), taldeari eta gure testuinguru sozioekonomikoari dagozkionak kontuan hartuta lan egitea, hauek baloratzeko, hobetzeko edo gainditzeko.





Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) ehun produktiboak izugarrizko garapena izan du azken urteetan. Alabaina, ezinbestekoa da jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa egitea, aurrerapen hori finkatzeko eta hedatzeko, gizartera oro har modu eraginkorrean zabaltzeko.

Hain zuzen ere, ESS hedatu beharra dago, gizarteari hurbildu eta jendearen gehiengoarentzat ekonomia desiragarri eta posible gisa normalizatu.

Ilido horretatik, ESS Kongresuaren ardatz honen helburua izan da hedapen hori ahalbidetzen nahiz eragozten duten aukerak eta oztupoak –barnekoak nahiz kanpokoak– identifikatzea eta ikeretzea. Gutako bakoitzaren, gure ekimenen eta gure testuinguru sozioekonomikoaren ahalmenak eta mugak identifikatzea, horiek dagokien neurrian aintzat hartzeko, gainditzeko edo haietatik haratago jotzeko.

Ardatzaren ondorioak aurkezteko, atal modura azalduko ditugu Kongresuan amaierako manifesturako nabarmendutako indar-ideiak, haren ‘freskotasunari’ eusteko.

Hazteak baditu gauza onak, eta dibertigarria da gizalegez lehiari jardutea

Atal honi izenburua ematen dion ideia asmoa probokatzea zen, ESSren baitako toki komun jakin batzuei buruzko asaldura sortzea. Adibidez, ideia horrek, itxuraz, kontra egiten dio lehiaren ordezkari lankidetzari sustatzearen aldeko apustuari, eta, gainera, ez dirudi zalantzan jartzen duenik hazkundea helburutzat hartzen duen ideia.

Lehen alderdiari dagokionez, 'hazteak baditu gauza onak', ESSren hedapenak aukera ematen du pertsona bazkide berriak proiektuei atxikitzearen abantaila jakin batzuei onura ateratzeko.

- ▶ Haztea esaten dugunean, gure ustez ona den zerbait jende gehiagoren eskura jartzea esan nahi dugu.
- ▶ Hazteak aukera gehiago ematen ditu inbertsioak behar dituzten proiektuei heltzeko edo berrikuntzarako baliabide gehiago gordetzeko.
- ▶ Antolakunde handietan errazagoa da txandaketa, eta aukera ematen du pertsonen higadurari aurre egiteko sistemak gartzeko.
- ▶ Hazkundeak zeharkako gastu eta kudeaketa ahalmen handiagoa ematen du.

Dimentsio handiagoa izatea iraunkortasun estrategia baten, pertsona jakin batzuk atxikitze behar edo bultzadaren nahiz aukera berriak agertzearen ondorioa izan daiteke.

Eta, alderdi horretatik begiratuta, garrantzia du dimentsioak.

Bestalde, hazkudearen gaineko eztabaida berrikuntzaren auziari lotu zitzaion, eta kontuan hartzen hasi ziren nolabaiteko arriskuak beren gain harturik berritzeko gaitasuna hartzeko beren antolaketara modua aldatu eta profil berritzaileak txertatu zituzten esperientziak. Aurpegi berriak biltzeak, dibertsitatea bilatzeak, proiektuari eta beste espazio batzuei atxikitzeak energia ematen du.

Idea-probokazioaren bigarren parteari dagokionez –'dibertigarria da gizalegez lehian jardutea'–, ez du ukatzen lankidetzan oinarrituriko erlazio ereduak bilatu behar direnik, baina aintzat hartzen du ESSko ekimenek beste enpresa modalitate batzuekin konkurrentzian dihardutela merkatuan eta haiekin lehiatu behar dutela.

Merkatuan konkurrentziako erlazio horiek 'gizalegezko lehian' gartzzea kitzikagarria gerta daiteke. Horretarako, abusurik gabeko merkatu-erlazioetan jardun beharra dago, lan kostuak murrizteko

ahalmenean edo ingurumen kostuak kanporatzean oinarrituko ez diren erlazio batzuetan, hain zuzen ere. Hala, hedapenari begira, ESSren baitako entitate askok hobetu egin beharko dute merkatu lehiakorrean hautatuak izateko ahalmena, beren eraldaketa asmoari eutsiz. Egiten jakin, eraginkorragoak eta eragingarriagoak izan, marketinaren fobia gainditu (hura problematizatzeari utzi gabe, hala ere), balio handiagoa eransteke gai izan, eskaintza kua-litatiboagoak egin.

Era berean, merkatuak edo bezeroak dibertsifikatzeko premia ere aipatu zen, mendekotasun handirik ez izateko eta autonomia bermatuta edukitzeko (bezero bakar batek ez betetzea fakturazio osoaren %10 baino gehiago).

Konfiantzan inbertsioa egiteak kohesioa dakar, eta errentagarria da

Antolakunde handienak konplexuagoak dira, eta haien ezaugarriak dira bazkideen zuzeneko partaidetza urriagoa, erabakitze prozesuen gaineko kontrol galera eta gatazka gehiago izatea.

Beharrezkoa da ardatz honen eta haren erronken inguruko lankidetzari jarraipena emateko ildo bat sortzea.



ESSren hedapenean, aurre egin beharko zaio konplexutasunari, bestelako antolaketa molde eta tresnak erabiliz, partaidetzako oinarri demokratikoetatik abiatuta produzitzen eta kudeatzen jarraitzeko aukera emango duten gobernantza sistemak garatuz. Kultura kooperatiboa gailendu behar zaio teknokraziari. Helburua ez da bazkide langileei ondasun materialak eta eskubideak ematea, baizik eta heldutasuna eta autogestioa lantzeko aukerak. Gainera, eredu konplikatuegiak erabili gabe, neurritz gaindiko ahalegin-inplikazioa eskatu behar ez izateko. Nola lortu hori bizitzarako iraunkorra eta erraza izateko moduan?

Zenbait ildo aipatu ziren:

- ▶ Horietako bat da entitate handiagoen baitan antolatutako lantalde autonomo txikietan artikulatzea partaidetza. Helburua da entitateari berari buruzko urruntzea eragoztekoa, eta talde erlaziorako espazio bat izatea eguneroko lanerako, ezagutza pertsonalean eta autonomia maila adierazgarri batean oinarritua.
- ▶ Garrantzizkoa da inplikatutako sektoreen artean konplizitatea sortzea, bai harreman formaletan nahiz informaletan (zeinak baitira funtsezkoak ESSren logikan).
- ▶ Ikaskuntza dialogiko moldakorra lantzea eta hitz egiteko presatasun handiagoa izatea.
- ▶ Alderdi normatibo edo arautzaileari nagusitasuna kentzea, leerro gorri arinek markatutako joko eremu bat finkatuz (“bizi eta utzi bizitzen” ideian oinarriturik) eta ongi komunaren oinarritzko arauetan oinarriturik: generikoak, neurgarriak, adostuak eta aldagarriak.
- ▶ Lidergoak txandakatzea eta pluralak izatea, koordinazio taldeekin.
- ▶ Lantaldeen bilerak ongi egitea, sistematizatzea eta haietan egindako lana ongi jasotzea; kudeaketa tresna bikaina dira.
- ▶ Garrantzizkoa da prestakuntza teknikoan eta balioetan oinarrituriko prestakuntzan arreta jartzea.

- ▶ Baita lantaldeen malgutasuna lantzea ere, egoera berriei erantzuteko.
- ▶ Eta “tematasuna”: ez etsitzea lehen porrotarekin.

Azken batean, kohesioa lantzea, lantalde autonomo txiki eta ongi koordinatuetan antolatzea, eta konfiantza kudeatzea dira zuzeneko partaidetzari kalterik egin gabe antolakundea eskalatzeko jarraibide egoki batzuk.

Lanak gu eraldatzea eta lana bera eraldatzea da lotura egingo duen elementua

Logika kapitalista, heteropatriarkal eta androzentrikoan murgilduta gaude, eta logika horiek ESSn ere erreproduzitzen dira. Funtsezkoa da logika horiek eraldatzea. Geuri ere eragiten digute, gutxi-asko, eragileen arteko lehiak, hazkunde erasokorrak, dirua beste kapitalen gainetik nagusitzeak, lanak bizitzeko beste alderdi batzuekiko zentralitatea izateak, arlo produktiboa arlo erreproduktiboari gailentzeak, gizakia planetako gainerako gizakiak baino gehiago balitz bezala hartzeak...

Akatsa da ESS “enpresa egiteko beste eredu bat” besterik ez dela formulatzea, ESSren izaera emantzipatzaileari uko egiten baitio. Antolakunde askori gertatu izan zaie beren ibilbidean enpresa ‘egiturara’ mugatuta gelditzea eta kultura kooperatiboa higitzea, eta asko ikas dezakegu esperientzia horietatik. Eraldaketa bokazioari eusteak geure buruari honako galdera hauek egitea eskatzen du: zer eginkizun du ESSren baitako ekimen bakoitzak gaur egungo errealitatean? Nola uztartzen da errealitatearekin?

Izaera eraldatzaile hori esperientziak uztartzeko elementua bihurtzen da, gainera; kohesio elementu nagusia da. Izaera eraldatzaileak sortzen duen irrika da ESSren baitako proiektuen eta

mugimenduaren bateria energetikoa. Irrika bat, zeina eratoritzen baita premiak, desipremiak, presirak eta desirak konbinatuzetik (oinak lurtean, baina desiratzeari utzi gabe). Eta garrantzitsua da irrika hori organizazioa osatzen duten pertsonen partekatua izatea, baina baita organizazioek partekatua izatea ere, sare irrikatsuak osatzeko.

Nolanahi ere, eraldaketa irrikatsua beste faktore hauetan ere oinarritzen da:

- ▶ Lurraldearekiko atxikimendua, giza garapen iraunkorreko eskualde proiektuen bidez; izan ere, enpresaren dimentsio humano eta komunitarioa galduz gero, enpresak galdu egingo du eraldaketa ahalmena ere. Izan ere, lokala izatea da unibertsala izateko lehen kate-begia.
- ▶ Zaintzak eta haien lehentasunak prozesu eraldatzaile orotan duten egitekoa, gure ingurunearekin batera gu geu ere eraldatuko baikaitu. Arlo profesionala eta arlo pertsonala uztartzea; txandakatzea, inor 'erre' ez dadin; bizitzaren zentraltasuna... Erronka jotzen ari zaizkigu auzi horiek guztiak.
- ▶ Arlo soziala arlo ekonomikoaren mende dagoela dioen ustea –oso sakon sustraitua– deuseztatzea. Agerian uztea alderdi soziala ekonomiaren ikuspegi desitxuratu edo oker batek

Badakigu horretarako errezetarik ez dagoela, baina elkarrekin jardun behar dugu sukaldean.



bahituta dagoela, zeinak gutxietsi egiten baitu. Gizarte-esperientziei jartzea arreta, erakusteko ikuspegi hori txertatzen denean proiektuak indartsuagoak eta iraunkorrak direla. Benetan garrantzia duen horri ematea arreta.

- ▶ ESSren baitako ekimenen ebaluaziorako eta inpaktua neurtzeko tresnak finkatzea, haien izaera eraldatzailea sendotzeko eta gizartera zabaltzeko funtsezko tresna gisa harturik.

Azken batean, izaera eraldatzaileari buruzko kontzientzia pertsonala elikatzea, merkatu sozialean eskaintzen diren produktu eta zerbitzuen balio diferentzialaren berri izatea eta balio hori bezeroei, komunitateari, helaraztea... ESS hedatzeko nahitaez landu beharreko alderdiak dira guztiak ere.

Erakargarriak, irekiak eta eta abegitsuak izatean oinarriturik hazteko modu bat. Konplizeak izatea eta elkar kutsatzea

Alternatibo izatearen nolabaiteko autokonplazentziari eta endogamiar aurre egin behar zaio, horrek kanpotik estigmatiza gaitzaten eragin baitezake; alabaina, horretarako, beharrezkoa da dibertsitatea gure baitan biltzea eta eskuzabaltasunez hurbiltzea beste esperientzia batzuetara:

- ▶ Funtsezko balioak, antolakundean inplizitu daudenak, partekatzen dituzten pertsonak biltzea. Kontua ez da balio jakin batzuk finkatzea, baizik eta antolakunde dialogikoak izatea.
- ▶ Erakargarriak izatea, pertsona eraldatzaileek lan egin nahi izan dezaten eta bat egin nahi izan dezaten.
- ▶ Kutsatzeko beldurrik ez izatea, identitatea galtzeko beldurrik ez izatea. Bat egiten dutenen identitateak batzea.

- ▶ Erabiltzaileak, komunitatea barne hartzea.
- ▶ Beren proiektu propioekin etortzen zaizkigun pertsonak biltzea. Erakargarriak izatea, antolakunde gisa, ekintzaile izan nahi duten pertsonentzat, eta haien esku jartzea gure baliabideak. Kontua ez da hainbeste entitateak kide gehiago biltzea, ekimen gehiago biltzea baizik.
- ▶ Pertsona berrien harrera zaintzea, eta zaintzen sare bat osatzea pertsona berrientzat nahiz aurretik bazihardutenentzat, kontuan harturik pertsona guztiak ez daudela beti etapa eraldatzaile berean eta helburu komunak berrikusi egin behar direla.
- ▶ Lerro gorri batzuk markatzea, bezero, diru-laguntza, emaila, banku, multinazional eta proiektu nabarmen antagonista jakinei uko egiteko.
- ▶ Hizkuntza hurbilekoa erabiliz, enpatiaz eta zabaltasunez.

Azken batean, bat egin, batu, elkar kutsatu, elkarrekin gainditzeko ESSren “kristalezko sabaia”.

Haize kontra hegan egiteko, hobe da samaldan saiatzea, elkarri txanda emanez, antzarak bezala

ESS haize kontra doa hegan, eta akigarria da benetan. Horregatik, beharrezkoa da samalda, txirrindulari tropela, txandak elkarri emateko. Hazkunde organikoak ez dio kontra egiten antzara samalda horrek ahalbidetzen duen sareko hazkundeari.

Esperientzien arteko artikulazioa integrazio handiagoa lortzearen eta ekimen bakoitzaren autonomiari eustearen arteko tentsioaren mende dago. Dena dela, oreka lortzeko modu asko daude. Irabazi-irabazi eszenatokietan oinarrituriko sinergiak bilatzea

da gakoa. Berrikuntza sortuko duen eta sendotasuna emango digun zerbait aurkitzea.

- ▶ Sareentzat, funtsezkoa da hurbiltasuna eta aurrez aurreko harremana, esperientzia eta jakintzen trukea, eta egiteko beste modu batzuekiko harremana. Beharrezkoak dira esperientzien arteko joan-etorriko egoitzak; ostatu osagarriak; edo bestelako programa batzuk, gure inertzietatik aterako gaituztenak, gure zilborrari begiratzeari uzten lagunduko digutenak eta “Nork bizi izan du hau?” jakiteko aukera emango diguten esperientzia zehatzak partekatze balioko digutenak.
- ▶ Dagoeneko badaude eta garatzen jarraitu beharko dira elkar ezagutzeko, gurutzatzeko, lankidetzarako... metodologiak. Hedapenerako sortutako tresnak dira, eta merezi du horiek ezagutzea eta erabiltzea (KOOPTel, esaterako). Aniztasunarekin lan egiteko aukera emango diguten tresnak dira, jarraibide komunak argitu eta ondoezak adierazteko espazioak eskainiko dizkigutenak.
- ▶ Hastapenetan diren proiektuentzat, berebiziko bultzada da beste entitate batzuekiko lankidetzak.
- ▶ Batzuetan, alde batera uzten dira norberaren identitateak eta markak, helmen handiagoko beste batzuk sortzeko; hala gertatzen ari da, esaterako, ESSren hedabideekin, El Saltok erakusten duenez.
- ▶ Lan kolektiboa egiteko eta gatazkak kudeatzeko tresnek aukera ematen dute sareen boterea eta zabaltasuna sendotzeko.
- ▶ Finantzabideetarako sarbidea ere –ESSren baitako finantzatresnen bidez– funtsezkoa da proiektuak hedatzeko, inbertsio ahalmen urria ahal den neurrian gainditzeko, muga handia izaten baita ahalmen urri hori, batzuetan.
- ▶ ESSren baitako eragileetatik haratago, hedapen horretan, garrantzi handiko egitekoa bete beharko lukete administrazio publikoek, samaldaren hegaldiari bultzada eta laguntza emateko.

- ▶ Oinarritik hasita, garrantzizkoa da administrazioak ESS zer den jakitea, Merkatu Soziala ezagutzea, merkatu horretako entitateak eta eskaintza ezagutzea. Eta aurrera egitea ESSren baitako entitateen aitortzan, entitate horiek aintzat hartzeko, linbo juridikoan baitaude irabazi asmorik gabeko edo gizarte-ekimeneko kooperatiben gisako formulak, eta baztertu egin ohi baitituzte diru-laguntzetatik, kontrataziotik, etab.
- ▶ Era berean, garrantzizkoa da erosketara publikoetik irizpideak eta kontratazioarako klausula sozialak atxikitzearen prozesuan sakontzea eta kontratazio publikoko trantsizio plan bat garatzea, haren bidez urte urte areagotzeko kontratazio horren ehunekoa, helburu neurgarri eta urte urte konparagarriak finkatuta.
- ▶ Halaber, ekimenen fase bakoitzerako politikak eta laguntza neurriak behar dira, adibidez, Barcelona Activak diseinutako modukoak, zeinetan, baratzearen metafora erabiliz, hiru kategoriatan proposatzen baitira: 1) Orgatxoak: lurra eraitzeko prestatzea; 2) Ureztagailua: hazia ureztatzea, zaintzea eta haren garapena laguntzea; eta 3) Tresna-kutxa: garapen, sendotze eta bilketari begirakoa.

Testu hau amaitzeko, etxeko lan batzuk ezarriko ditugu. Hain zuzen ere, ardatz honen eta haren erronken inguruko lankidetzari jarraipena emateko ildo bat sortu beharra dago, honako alderdi hauek kontuan hartuta: REASetik haratago zabaltzea; iparra ez galtzeko kontuan hartu beharreko orientazio komunak markatzea; ekintza zehatzak garatzea, adierazitako guztia oinarri harturik; eta politika publikoen arloan aurrera egitea. Badakigu horretarako errezetarik ez dagoela, baina elkarrekin jardun behar dugu sukaldian.

Antzaren modura, samaldan aurrera egitea da gakoa.

Egin dezagun, bada!





The background is a warm-toned photograph of a book fair. In the foreground, there are several stacks of books. One book spine is visible with the text 'Mano Oveira y José María Ferrás'. Another book spine has 'LA CENA DEL REY LOS P...'. A white tag with the number '07' and the word 'tarta' is attached to one of the books. In the background, a person wearing a black and white striped shirt is visible, and another person is partially seen on the right side of the frame. The overall atmosphere is that of a busy, well-lit book market.

04

**ONDASUN KOMUNAK
ETA EKONOMIA SOZIAL
ETA SOLIDARIOA**



LANTALDEA:

Comunaria-ko Ondasun Komunak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Lantaldea eta Ekhi Atutxa (UPV/EHU)

Ardatz horretatik abiatuta, komuna denaren ikuspegiak bere baitan duen kutxa ireki eta askotarikoari buruz gogoeta egitea proposatzen dugu, lurraldeei, jakintzei eta harreman eta kudeaketa mota desberdinei begiratuz.

Trukatzea, eztabaida egitea eta eraikitzea proposatzen dugu, komun berrien eta tradizionalen arteko interakziora jotzea, oztopoak nabarmenduz eta Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin batera XXI. mendean komunitate berri baterantz aurrera egiteko estrategiak eta zubiak eraikiz.




SARRERA: Komunalak eta komun berriak

Herri-lur modura kudeatutako mendiak, artisau erako arrantza eta arrantza iraunkorra aldarrikatzen duten arrantzale kofradiak, software libreko espazioak erreproduzitzen dituzten programatzaileak, ekoizleak kontsumitzaileekin zuzenean harremanetan jartzen dituzten merkatuak, premia komunitarioen arabera kudeatutako larreak, landutako biodibertsitateari eustearen alde lan egiten duten hazi sareak, txikien beharrei erantzuten dieten hezkuntza eta hazkuntza taldeak, lurralde eta ondasun naturalak lantzen dituzten nekazari antolakunde asanblearioak, jarraibide kooperatiboen arabera eraikitako informazio eta komunikazio he-dabidea: auto-antolaketa erakusten digun ikusmira hori pertso-na askoren egunerokotasunaren parte da, non eta, zoritxarrez, mundua ingurumenari eta gizarteari dagokionez erabat hondatu-tuta ageri zaigun garai batean eta ekonomia konbentzionalak (ez, ordea, gehiengoarena) etenik gabe jarraitzen duen areagotzen berdintasunik eza, baliabideen harrapaketa eta kanpo zorren eta etxe zorpetuen bidez sortutako esklabotasun kateak.

Jarduera horietako askok (mendi, arrantza, larre, ur, hazi eta abarri dagozkienak) tradizio luzea dute mundu osoan. Gure bizit-zarako ezinbestekoak diren ondasun naturalei eusteko modu erresilienteak dira, eta izan dira. Komunal tradizionalak dira: komun zahar eta aktiboak. Gaurkotasuna dute, beren presen-tziagatik eta planeta osoko eskalako ekosistemen eta ekonomien funtzionamenduan betetzen duten egitekoagatik. Eta aktiboak dira, izaera erreproduktiboa dutelako eta haien jarduera inspi-ratzailea delako. Horren erakusgarri dira komun berri edo komun global deritzenak azalera ateratzen aritea. Etiketa horrek zera esan nahi du: gizarte-kooperaziotik sortutako prozesu berritzaileak, ondasun naturalen (ura, elikagaiak, mendiak, etab.) eta koo-perazioa ahalbidetzen diguten ondasunen (ezagutza, komunika-zioaren teknologia, merkatuak, espazioak, etab.) erreproduktzioa proposatzen dutenak eta esperientzia propioen barruan nahiz

kanpoan erlazio ekonomikoak demokratizatzean arreta jartzen dutenak. Komun berriak dira, esate baterako: trantsizio energe-tikorako kooperatibak eta lurralde jakin batean zirkuituak (poli-tikoak, energetikoak, elikadurakoak) ixten saiatzen den nekaza-ritza-ekologia; ekonomia sozial eta solidarioan eta giza zaintzen ekonomian oinarrituriko ekimenak, zeinak eratzen baitituzte lo-tura sozialak eta saiatzen baitira ondasun produktibo edo jakin batzuk irisgarriak eta iraunkorrak izan daitezen; eta, tipologia berriago gisa, ondasun kultural edo digitalak elikatzen dituzten prozesuak, zeinak saiatzen baitira kultura, jakintza edo informa-zioaren eta komunikazioaren teknologikoak guztionak izan dai-tezen, merkantilizaziotik at egon daitezen eta munduaren parte bat demokratizatzen lagun diezaguten.

**Gure bizitzarako
ezinbestekoak
diren ondasun
naturalei
eusteko modu
erresilienteak.**



1. DIAGNOSTIKOA: Komunal tradizioaletan oinarrituriko printzipioak, jardunak eta ikaskuntzak

- ▶ Batzuetan, komunal tradizioaletan ideologizazio handiegia dagoela dirudi, eta horrek ez digu uzten ñabardurak ikuspegi kritiko eta berreraikitzailetik begiratzen.
- ▶ Komunalen proposamena horizontala da, baliabideak eta lana partekatzean eta erlazio loturetan oinarritua. Ikuspegi kolektiboaren ekarpena egiten digute komunalek.
- ▶ Antzinako komuneroen DNAk atxikirik du ikuspegi kolektiboa, eta gaur egun konkistatu beharreko bokazio bat da, neurri handi batean.
- ▶ Zerbaiten parte izatea ahalbidetzen digute, alderdi ukiezinetik ere.
- ▶ Komunalak errotzeaz mintzo zaizkigu, komun berriek ez duten elementu bati atxikita daude: lurraldeari atxikita.
- ▶ Komunal tradizioalei behatzeak naturala denaren balioaz jabetzen laguntzen digu.
- ▶ Balio handikoa litzateke komunal tradizioalen antolaketa teknologiki ezagutzea, horiek denboran zehar nola iraun duten aztertzea.
- ▶ Hala ere, ez da dena positiboa: berraztertu egin beharko lirateke patriarkatua edo kanpotik komunitatera sartzeko zailtasunak, eta, ildo horretatik, badago komun berrietatik zer ikasi.
- ▶ Aztertu beharreko zenbait alderdi daude definizioei dagokienez, ñabardurei dagokienez, esate baterako, arlo publikoaren, pribatuaren eta komunaren arteko erlazioari buruz.
- ▶ Era berean, gizonek eraikitako kontzeptu horri buruz emakumeek duten ikuspegian sakondu beharko litzateke.

2. DIAGNOSTIKOA: Komunak eta oinarri komunitarioko ekonomiak hedatzeko gaur egungo eragozpenak

- ▶ Gure gizartean, berebiziko garrantzia du arlo “pribatuak”, “indibidualak”; ez dago argi publikoa denaren eta komuna denaren arteko muga.
- ▶ Ondasunak eskuratzeari eta erabiltzeari buruzko arauen definizio argi bat behar dugu komun berri bakoitzerako.
- ▶ Ez dugu mito berririk eraiki nahi. Berraztertu egin behar dugu komunalen barruan nola kudeatzen diren boterea, diferentzia, eskubideak: prestakuntza, prozesu pedagogikoak, etab. Eta sistematizatu egin behar ditugu haien memoriak, partaidetza eta iraunkortasuna ulertzeko moduak.
- ▶ Zer molde dira jendearentzat baliagarriak? Kultura eragozpenak eten, konplexutasunak murriztu, jendeari “begira” jardun, denbora... “Eraginkortasuna” erakutsi, egunerokotasunak “ebazteko” ahalmena (adi: komunak eta tribuak, estatua erretiratuz gero eta merkatuaren espoliazio egoeran, diskurtso interesatua izan daiteke eliteentzat).
- ▶ Bideragarritasunaren gizarte-hautemate zabalagoa: konpromiso sendoagoak, 4 astronauten kontua bezala ez ikustea.
- ▶ Bideragarritasunaren gizarte-islak zabalagoa: konpromiso sendoagoak, 4 astronautaren kontua balitz bezala ikusten da.
- ▶ Gatazkak kudeatzeko tresnen falta (garai batean baziren, landa edo ingurune eremu jakin bateko premia eta mendekotasun agerikoek bultzatuta).
- ▶ Komunak, komunalak bereganatzeko interesa duen legedia eta kapitala.

- ▶ Gure hizkuntzak (hizkuntza “alternatiboa”) ez du hedapena errazten: iraganaren eta orainaren artean zubiak eraikiko dituen kontakizun bat eraikitzeko premia.
- ▶ Osagai ukiezina: kulturala, sinbolikoa, ludikoa: nola berreskuratu, lankidetzaz sustatzeko, ezagutza partekatzeko?
- ▶ Komun tradizional materialistetatik haratago jotzeko beharra: eta zaintzak, hain “materializagarriak” ez izanik? Edo auzoetako, zentroetako... laguntza sareak?: komuna zabaltzeko premia.
- ▶ Lurralde batean sortzen ziren komunitateekiko aldea, gaur egun. Ekomendekotasuna gure gain hartzeko premia berriro pentsatu, guztia merkantilizatzeko joera gero eta nabarmenagoa eta zibilizazioaren kolapsoa ezaugarri dituen testuinguru berri batean. Loturak sortzeko komunak. Jatorriko komunitateetan errazagoa zen. Eraiki beharreko komunitateetan, helmugakoetan, konplexuagoa da.
- ▶ Gure ekonomien bidez, gure bizitzak eta rolak kudeatzeko ditugun moduen bidez bizi-espezializazioa lortu.
- ▶ Komun berri horietarako sarrera edo iritsiera progresiboa, nola prestatuko garen, nola egingo dugun harrera, nola politizatuko dugun eta sortuko ditugun gizarte-loturak lurraldeetan.



PROPOSAMENAK, 1: Nola lortu maita gaitzaten?

- ▶ Garrantzi handia du hizkuntzak (komun bat). Hizkuntza berri bat erabiltzea jendearengana iristeko, patriarkatua eta kapitalismoa hizkuntzatik erauzteko, edo antzinakoa berreskuratu? Esanahi berria eman beharko zaio.
 - ▶ Zentzu horretan ulertarazi behar dugu “jabetzaren” kontzeptua, ikuspegi komunitik: zerbait norbanakoarena da, baina guztiona da, ezin zatika daiteke. Komuna zer den jabetzea.
 - ▶ Adituek garatzeko moduko diskurtso bat lantzea.
 - ▶ Prozesuak mantsoak direla onartzea. Presarik gabe lan egitea.
 - ▶ Erreferente eta esperientzia praktikoak azalera ateratzea, eta “jardunean ari diren” protagonistak eta pertsonak zenbait arlotara hurbiltzea.
 - ▶ Ekintzak oso maila lokalean gauzatzea, eskuz esku laguntzea.
 - ▶ Kontzeptu horiek subiranotasunari atxikitzea. Artikulazioak sortzea.
 - ▶ Pertsonen erabakiekin –kontsumoari buruzkoekin, esaterako– loturiko egunerokotasuneko espazioetara iristea.
 - ▶ Ez gara hain xebreak, ez du hainbeste denbora eskatzen. Nola azalera atara? Alaitasunetik eta soiltasuna erakutsiz komunikatzea.
 - ▶ Norengana iritsi nahi dugun identifikatzea. Komunikazioa hartzaileen arabera egokitzea, oso zatikatuta baitago “publikoa”, baita komunikazio kanalak ere.
 - ▶ Agian, ez du zertan beti iritsi kontakizun osoak, edo ez dute beren gain hartu edo ulertu behar kontakizuna osorik.
- ▶ Daukaguna sendotzea, batzea. Zer ingurune dugu irabazita? Alderdi lokala sendotzea eta bistaratzea.
 - ▶ Pertsonetikiko hurbileko loturak berreskuratzea. Konfiantza sareak sortzea eta horiek euskarri hartzea.
 - ▶ Sarbideko prozedurak sinplifikatzea (adibidez: diru sozialetarako sarbidea konplexua izaten da, batzuetan).
 - ▶ Konfort eremutik ateratzea eta espazio berriak betetzea, partekatzea. Ekintza politikoa da, bere horretan.
 - ▶ Erraztea – egunerokotasuna.
 - ▶ Agitazioa! :)

**Komunal
tradizionaletatik
ikasi
komun berri
eraldatzaileak
eraikitze.**



PROPOSAMENAK, 2: Nola eraiki eta sortu sinergiak (gatazkarik saihestu gabe) hurbileko erakunde publikoetako kideko sareetan (munizipalismoak)

- ▶ Behar adinako erabilerarik ematen ez zaien baliabideen mapa eta inbentarioa osatzea, eta dinamika horiei atxikitako estrategien bidez aktibatzea ondarea.
- ▶ Erakundeekiko identifikazioa berreskuratzea eta haien kudeatzaile askoren erabilera patrimonialista salatzea. Herritarren zerbitzuko tresna.
- ▶ “Komuna” denaren ideiak eta jardunak gizarteratzea tokiko gobernuetan: batez ere, langile teknikoek artean; klase politikoa aldatu egiten da, eta langile teknikoek iraun egiten dute. Ingurumenari dagokionez dituzten potentzialitateak baliatzea gizartean zilegitasuna lortzeko.
- ▶ Arautegia, erregistroak, lege-arkitektura ekimen horien kontra jotzeko diseinatuta dago... baina barneratu behar da bada-goela horiek guztiak aldatzea eta moldatzea, ekimenak hertsatu ordez haiek babes ditzaten.
- ▶ Gizartearen eta erakundeen arteko elkarrekiko mesfidantza desagerraraztea: erantzukizunak barneratzea eta ahalmena erakustea.
- ▶ Auzoarentzat eta bizilagunentzat hurbilekoak eta ulergarriak izango diren kontakizunak... jende arruntarentzako kontakizunak.
- ▶ IKTak, gardentasuna hobetzeko; opendata, e-government...
- ▶ Komunek erregularizazioan eta esleipenean bezeriara jo ez

dezaten zaintzea... autonomiari eustea eta komunak alderdikeriaz erabil daitezen eragozte.

- ▶ Herritarren partaidetzarako espazio berri ez-kontsultiboak, deliberatiboak eta erabakigarriak.
- ▶ Erakundeek ESSren kanpokotasun positiboak aitortzea; erosketa publikoa, arautegiak, zerga-erregularizazioa... Zenbait tresnaren aintzatespena bilatzea, hala nola, Ongi Komunaren Ekonomiaren adierazleena edo balantza sozialarena.
- ▶ Aurretiko jakintzak eta materialak baliatzea; ez asmatu behar izatea gupila aldi oro.
- ▶ Lankidetasun publiko kooperatiboen edo komunitarioen aukerak aztertzea, era horretako jarduerak garatzeko eta hedatzeko modu gisa.

PROPOSAMENAK, 3: Nola erauzi ekonomia konbentzionala gure buruetatik, gure jardueretatik, gure bizitzaren gaineko erabakiak hartzen dituzten erakundeetatik?

Non gauden:

- ▶ Barreiadura handia dago ESSn, oro har, eta, bereziki, komun zaharretan eta berrietan. Uharte txikien modukoak gara, artikulazio sendorik gabeko uhartetxoak.
- ▶ Arreta handiegia jartzen dugu produktibismoan, baita errentan ere: esanahi berria eman behar diogu ekonomiari, ikuspegi ez-konbentzionaletik.

- ▶ Ez da lantegi erraza prekaritatea nagusi den garai hauetan kontsumotik abiatuta eraldatzea! Egin aurre erdikoklasetasunari...

Proposamen sozialak:

- ▶ “Moda” jakin batzuek ekar dezaketen onura baliatzea (zero kilometroa, hurbiltasuna, osasuna, etab.).
- ▶ Zerbitzuetatik eta merkatu eta produktuen zabalkundetik abiatuta aldaketa pertsonalak egitea, pixkanaka, ekonomia oro har politizatuko duten dinamika sinpleen bidez.
- ▶ Ekonomiaren bestelako kontakizun batzuk sortzea, ezkutuko curriculumak azalera ateratzea, bizitzatik eta interes komunitik komunikatzea.
- ▶ Gure artikulazio ekonomikoak zabaltzea, bigarren mailako kooperatibetara, merkatuetara, elkarrekiko lankidetzetara (eskalako arazoei erreparatu).

Jendearengana iristea:

- ▶ Sinesgarritasunez komunikatzea: dagoeneko bidea egiten ari gara!
- ▶ Errealitatea erakutsiz komunikatzea: esperientzia asko gara, badira bestelako ekonomia batzuk.
- ▶ Guztiok irabaziko dugula adieraziz bistaratzea: balio erantsia, lurralde inpaktua, baina baita gizarte-justizia eta lan duinak ere.
- ▶ Bizia dugu jokoan, ekintza ekonomiko guztiak dira politikoak: duintasunez eta gustura bizi nahi dugu; alaitasunaren eta ludikotasunaren garrantzia.

Korapilo eta bultzada politikoak:

- ▶ Ekonomia konbentzionalak kostuak bere gain har ditzan prezioa egitea: motxila ekologikoak eta sozialak.
- ▶ Merkatu kapitalistaren erregulazioa: legeak, erosketak publikoak.
- ▶ Oro har, ez izatea “adabakiak”: egiturazko aldaketak bilatzea.
- ▶ Laguntzak ESSren ikuspegitik ematea; administrazioak ez dio bide horri jarraitzen gaur egun.
- ▶ Aliantzak: unibertsitateak, munizipalitateak, bestelako ekonomia alternatibo batzuk.
- ▶ Borrokatzea: denbora, eskubideak.

Azken batean:

- ▶ Produkzioak eta kontsumoak eta, are, bizimoduak eraldatetik harago jotzea: auto-organizazio sozial bat eraiki nahi dugu lurraldeei atxikitako ekonomia berrien bidez, solidaritatea eta gizarte-loturak helburu nagusitzat harturik, inola ere ez bigarren mailakotzat.
- ▶ Komunal tradizioetatik ikas dezakegu, komun berri eraldatzaileak eraikitzeko.

decido a menudo que
quiero crear
deseo crear

Panasonic



05

**HERRITARREN BAT-EGITEA
ETA EKONOMIA SOLIDARIOA:
EGITURA KOOPERATIBO ZABALAK,
ESS-REN ERAIKUNTZAN**



LANTALDEA:

Eduardo Urturi (GoiEner), Esther Muñoz (Energia Gara), Isa Álvarez (EHNE Bizkaia), Peru Sasia (Fiare Banca Etica), Rubén Suriñach (Opcions aldizkaria), Susana Ortega (Merkatu Soziala eta REAS Aragón).

Azken urteotan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) baitan hainbat ekonomia alternatibo sortzen ari direla ikusi dugu. Ezaugarri nagusi bat dute guztiek: beren sorreraren eta kontsolidazio dinamikien arabera, beharrezkoa da gizarte kapital sendoen arteko sareak eraikitzea, milaka pertsona eta erakunde lotuko dituztenak, lurralde eskala zabaletan. Horien artean, aipatzekoak dira finantza etikoko egitura kooperatiboak, energia berriztagarrien ekoizpenean eta merkaturatzean oinarrituak, kontsumo agroekologikokoak... Ezaugarri hori ez da soilik iraunkortasun ekonomikoan oinarritutako arrazoen bitartez azaltzen, bilatzen duten erantzun sozial motaren eta eskaintzen duten eraldaketa proposamenaren bitartez baizik. Era horretara, ekimen mota horiek, balio ekonomikoa ez ezik, balio politiko nabarmena hartzen dute, eta ESSarentzat eta gizartea aldatzeko haren proposamenarentzat aukera argia da, eta ESSak ongi ulertu eta bultzatu behar du hori.

Ardatz tematiko horretan, Ekonomia Solidarioaren baitan sortutako dinamika mota horiei buruz egin nahi dugu gogoeta, hainbat alderdi aztertuz, besteak beste, horien gaitasuna ESS osoaren baitan edota nortasuna galdu gabe egitura zabalak sortzeko premiak eragiten dituen erronkak. Era berean, gizarte merkatuaren balioa eta haren erronkak aztertuko ditugu, ekimen horiei esparru bat eskainiko dien egitura egonkor baten moduan (baina ez bakarrik horiei, noski), eta horiek merkatu hori sendotzeko prozesuari ekar diezaioketen balioa.

6. PRINCIPIOS ECONOMÍA RURAL

1. SE ENFOCA EN ALIMENTAR AL PUEBLO
2. BUENA Y DIVERSA PRODUCCIÓN ALIMENTARIA
3. LOGICIDAD SISTEMAS ALIMENTARIOS
4. EFICIENCIA LOCALMENTE
5. DESARROLLA LOCALMENTE Y DEPENDIENDO PARA CONSERVAR LOS RECURSOS
6. TRABAJA CON LOS RECURSOS A TRAVÉS DE TRABAJO DIVERSAS DE MANEJO AGROPECUARIO Y DISTRIBUCIÓN

6. PRINCIPIOS ECONOMÍA RURAL

1. EQUIDAD
2. TRABAJO
3. SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL
4. COOPERACIÓN
5. SIN FINES LUCRATIVOS
6. ECONOMÍA CON EL ENTORNO (Y EL TERRITORIO)



Ardatz hau planteatzeko, honako uste argi hau hartu zen abiapuntu gisa: ekonomia sozial eta solidarioak gaitasunik izango badu marko ekonomiko gailenaren ekonomia kolokan jartzeko, gai izan behar dugu imajinatzeko egituraketa eta zirkulazio ekonomikoko zer proposamen hedatu behar ditugun herritar talde zabaletara iristeko, gehiengo sozialen premiak asetzeko espazioak sortzeko, lankidetzaren eta demokrazia ekonomikoaren printzipioetan oinarrituta.

Uste horretatik abiatuta, hiru jarduera antolatu ziren eskalagarritasunaren erronkaren –erronka erraldoi horren– zenbait alderdiri heltzeko.

1. saioa. Hitzaldi eragingarria: Helmen handiko egiturak: eskalagarritasunaren erronka, ekonomia sozial eta solidarioan

Saio honen abiapuntu gisa, Ruben Suriñachek aurkezpen bat egin zuen, ardatzaren sarrerako dokumentuan aipatutako zenbait gogoeta eta erronka azaltzeko. Lehen urratsa helmen handiko egiturei buruzko definizio komun bat finkatzea izan zen:

(...) ESSren printzipioetan oinarrituriko esperientziak, zeinak baitute funtsezko ezaugarri gisa beren sorrera eta sendotze dinamikek kapital sozialeko sare trinkoen artikulazioa inplikatzeko eta sare horien bidez lurralde eskala zabaletan milaka pertsona eta antolakunde elkarri lotzea.

Definizio horrekin bat datozen zenbait proiektu identifikatu ziren: Fiare, Coop57, Goiener, Som Energía, bai eta ESSko sareen merkatu sozialak beraiek ere. Era berean, nabarmendu zen gaur egun badirela helmen handiko era horretako esperientziak ahalbidetzen dituzten testuinguru-elementu jakin batzuk.

Hortik aurrera, hazkunde dinamiken sorta bat aurkeztu zen, premiak asetzeko mikro-esperientzia komunitarioetatik gizarte-lankidetzako makro-egituretara jauzi egiteko ideian oinarrituak. Hizlariak hiru multzotan sailkatu zituen dinamika horiek, eta erronka jakin batzuk atxiki zizkion multzo bakoitzari:

1. Hedapena: Hasieran mikro diren esperientziek beren eskala handitu, eta, azkenean, helmen handiagoko egitura profesionalizatu gisa finkatzeko dinamika da. Erronka atxiki hauek ditu dinamika honek, besteak beste:

- ▶ Antolakundearen egunez eguneko kudeaketaren eta proiektuaren horizontea berrikusteko eta birdefinitzeko gaitasunaren arteko tentsioa.
- ▶ Antolakundearen oinarri sozialaren eta haren egitura operatiiboaren arteko informazio eta partaidetza bideak eta jarioak.
- ▶ ESSren enpresa-kultura eraikitzeko premia, zeinetan kontuan hartuko baita ikuspegi feminista egitura handien antolaketa-kulturan (boterea, zaintzak eta afektuak).
- ▶ Hazkundeari buruzko tabuak: soldatapeko lana vs lan militantea; “alderdi ilunari” loturiko teknika jakin batzuk ikastea, etab.

2. Erreplika: Helmena biderkaduraz handitzean datzan dinamika; hau da, esperientziak biderkatu egiten dira, ugartu. Erronka hauek ditu, besteak beste, dinamika honek:

- ▶ LBizitasun handiko testuinguruetan edo testuinguru prekarioetan proiektu berrien sorrera laguntzeko ahalmen urria.
- ▶ Identitate partekatu sendo bat sortzeko premia, erreplika ez dadin bihurtu enpresen arteko lehia.
- ▶ Sektore berean diharduten antolakundearen artean baterako proiektuak garatzeko beharrari erantzuteko ezintasuna, eta komunikazio eta artikulazio dinamikak eta kanalak ezartzeko ahalmenik eza.



- Bigarren mailako egiturak edo egitura erkidetuak garatzeko premia.

3. Translazioa: Hirugarren dinamikan, eskala sortzeko ahalmena duten eragile batzuek arreta jartzen diete mikro-esperientziei, inbertsioak egiten dituzte haietan eta beren enpresa/antolakunde idiosinkrasiaren arabera moldatzen dute espazio esperimentalek garatutako produktua edo zerbitzua. Erronka hauek ditu, besteak beste, dinamika honek:

- Oportunistak sartzeko eta ESSren erabilera instrumentalerako arriskua (sektore pribatuan nahiz publikoan).
- Administrazioaren erritmo eta beharren eta ESSko prozesuen berezko erritmoen arteko tentsioa (“aukera galduen mantra” indargabetzea).
- Teknifikazioaren ondorioz eta ekimen berrietan helburu sozioenpresarialak nagusitzearen ondorioz proiektu politikoa galtzeko arriskua.
- Mugimendu “mesianiko” berrien sorrera; gurpila behin eta berriro asmatzeko eta aterki edo bilgunea izateko lehiaren arriskua.

Hedapen prozesu askotan –edozein formulari jarraitzen diotelarik ere–, elementu nabarmen eta zeharkakoak izaten dira, batetik, hazkunde azeleratuko prozesuen berezko tentsioak (“hazkunde krisia”), eta, bestetik, lan prekarietatea eta antolaketa prekarietatea, ESSko esperientzietan “normalizatu” egin ohi direnak maiz.

Aurkezpenaren ondoren, helmen handiko egitura hauek ahalbidetzeko eta egokitze hiru lan hipotesiren gaineko azalpena eta eztabaida egin zen:

1. Merkatu soziala eraikitzea

Merkatu sozialaren esparru kontzeptuala aurkeztu zen, eta azaldu zen nola garatzen ari diren Katalunian merkatu soziala eraikitze-ko estrategiak. Zehar elementua, erlazio sozioekonomikoen bi-tartekaritza logika gisa, interkooperazioa da. Hainbat motatakoa izan daiteke: (i) Sektoriala - horizontala: balio-katearen kate-begi berean diharduten antolakundeak elkarrekin koordinatzea, es-
trategia eta egitura komunak garatzeko. (ii) Sektoriala - bertikala: balio-kate batean elkarri loturiko kate-begietan diharduten anto-

lakundeak (esate baterako, erauztea-fintzea-prozesatzea-manu-faktura-banaketa-kontsumoa) elkarrekin koordinatzea, estrategia eta egitura komunak garatzeko. (iii) Sektore artekoa – modularra: sektore elkarren erabat desberdinetan diharduten antolakundeek sektore berri batera sartzeko bat egitea, elkarturik indar gehiago izateko.

Era berean, merkatu soziala eraikitze askotariko tresnak daude, eskalagarritasunaren erronkei aurre egiteko bidea eman dezake-tenak. Honako taula honetan laburbilduta daude:

ERRONKAK	MERKATU SOZIALAREN TRESNAK
<ul style="list-style-type: none">▶ Egunerokotasuna kudeatzea vs. Horizontea bistaratzea▶ Informazio eta partaidetza bideak eta jarioak▶ Hazkundeari buruzko tabuak partekatzea eta horiei aurre egitea	<ul style="list-style-type: none">▶ Antolaketa eta eskalagarritasuna erronkei buruzko tailerrak
<ul style="list-style-type: none">▶ ESSren enpresa kultura eraikitzea	<ul style="list-style-type: none">▶ Antolaketa eta eskalagarritasuna erronkei buruzko tailerrak▶ Balantze eta ikuskapen sozialak, kudeaketa tresna gisa
<ul style="list-style-type: none">▶ Identitate partekatu sendoa sortzea	<ul style="list-style-type: none">▶ Balantze eta ikuskapen sozialak, sentsibilizazio tresna gisa▶ Merkatu sozialaren egoeraren txostena eta antoalundeen katalogoa▶ Interkooperazioko urteko azokak eta topaketak
<ul style="list-style-type: none">▶ Baterako proiektuak garatzeko komunikazioa eta artikulazioa▶ Bigarren mailako egiturak edo egitura erkidetuak garatzea	<ul style="list-style-type: none">▶ Interkooperazioko urteko azokak eta topaketak▶ Sektore eta lurralde sareak artikulatzea▶ Mapatze kolaboratiboak eta deszentralizatuak
<ul style="list-style-type: none">▶ Oportunistak sartzeko eta erabilera instrumentala▶ Proiektu politikoaren galera, teknifikazioaren eraginez	<ul style="list-style-type: none">▶ Balantze eta ikuskapen sozialak, merkatu sozialera sartzeko giltza gisa▶ Sektore eta lurralde sareak artikulatzea
<ul style="list-style-type: none">▶ Presentziarik gabeko sektoreak: balio-kate luze eta oso zatikatuetara sartzeko zailtasuna; eskulangintza vs. industria.	<ul style="list-style-type: none">▶ Interkooperazioko urteko azokak eta topaketak▶ Sektore eta lurralde sareak artikulatzea▶ Mapatze kolaboratiboak eta deszentralizatuak

2. Administrazio publikoa, erraztaile gisa

Bigarren gaia administrazio publikoaren zereginari eta harekiko erlazioari dagokio. Proposamen nagusi hau egin zen gai horri buruz: ESSko antolakundeak sustatzea eta haien kontratazio publikoa, zerbitzu publikoen emaile eta administrazioarentzako berarentzako hornitzaile gisa, partaidetza publiko-kooperatibo-komunitario moduan. Formula horrekin, erakunde publikoen eroste-ahalmenak segurtasuna eman dezake –urte batzuetarako eskaria finkatuta– zenbait sektoretan helmen handiko proiektuak garatzeko, hala nola, hondakinen kudeaketan, gizarte-zerbitzuen edo lorezaintza eta hiriko mantentze zerbitzuen horniduran, eta erakundearen, EESko antolakundearen eta dagokien komunitateen arteko baterako kudeaketaren bidez.

3. Aldaketa kulturalerako aliantza zabalak eratzea

ESSren dimentsio politikoa esperientzia guztien elementu komuna da. Mugimendu berriak azalratzeak –ekonomia kolaboratiboa edo ongi komunaren ekonomia, adibidez– gudu-zelai berriak irekitzen ditu ikuspegi politikoen artean, eta garrantzizkoa da ESSren esparrutik fenomeno berri horiek irakurketa eraldatzaileetara bideratzeko bultzada ematea eta mekanismoak sortzea –merkatu soziala bera, esate baterako–, argi eta garbi bereizteko zer den eraldatzailea eta zer ez.

ESSk gaitasuna izan behar du marko ekonomiko zapaltzailearen hegemonia kolokan jartzeko.



2. saioa Esperientzia-mahaiak

Saio honen helburua izan zen ahotsa ematea ESSren esparruan Estatuan interkooperazioari, agregazioari eta herritarren ahalduntzeari buruz dagoeneko abian diren ekimen ugarietako batzuei. Hain zuzen ere, hiru esperientzia aurkeztu ziren:

MES Opciones, Jordi Rojasen eskutik. Kontsumo arduratsuaren alde lanean diharduen kooperatiba, merkatu soziala eraikitzen ari dena herritarrei aukera emanez ekonomia solidarioan diharduten enpresen hornitzaileengana iristeko. Dagoeneko 2.000 bazkide ari dira, modu aktiboan, eta beste 8.000 pertsonak bat egingo dute 2017an.

Ekhi-e moneda social, Miguel Ángel Gonzálezen eskutik. Diru lokala, Bizkai osoan indarrean dagoena. Haren helburua da dirua birpentsatzea, balioetan oinarrituriko ekonomia lokala sustatzea eta bizitza komunitarioa berreskuratzea. 260 bazkide ditu, gaur egun, eta 80 saltoki, kooperazioaren bidez.

Kolectivos del Parque Alcosa, Penélope Valeroren eskutik. Proiektu komunitarioa, zeinaren nortasun ikurra baita langabezian, pobrezia egoeran, baliabiderik gabe, prestakuntzarik gabe, diskriminazio egoeran edo bazterketa aurreko egoeran dauden pertsonen proposatzea eta bilatzea beren arazoei aurre egiteko konponbideak.

Aurkezpenen ondorengo eztabaidan, honako bi indar-ideia edo proposamen hauek nabarmendu ziren:

- ▶ Interkooperazioarekiko beldurra gainditzea, kontuan harturik funtsezko eragilea dela eskalagarritasun erronka asko gainditzeko eta ESSren produktu eta zerbitzuen publiko handia “limurtzeko”.
- ▶ Beharren interkooperazioko espazioak sortzea eta gure proiektuak biztanleria guztiaren eskura egon daitezen lortzea.

3. saioa

Lanketa kolektiborako tailerra

Tailer honen helburua zen ekimenetan eskalagarritasunari buruz sortu ohi diren beldurrak eta tabuak lantzea. Hain zuzen ere, espazio honetan beldurrak eta tabuak identifikatzea eta horiei aurre egiteko eta horiek gainditzeko balizko estrategiak partekatzea zen asmoa.

30 lagun inguruk parte hartu zuten tailerrean, eta 4 taldetan jardun zuten lanean. 2 taldek tabuak landu zituzten, eta beste 2 taldeek, berriz, beldurrak.

TABUAK. Proiektuetan lantzen eta aipatzen ez diren arren, hor daudela “dakigun edo hauteman dugun” elementuak.

BELDURRAK. Aipatzen diren baina, oro har, lantzen ez diren edo ongi kudeatzen ez diren eta proiektuetan mugatzaileak diren alderdiak.

Emaitzak

Tailer honetan aipatutako beldur eta tabu nagusiak hiru ardatz hauetan sailkatu daitezke:

1. Definizioa, barne-eztabaida.
2. Bideragarritasuna eta funtzionamendu ekonomikoa.
3. Erlazioak, alderdi emozionala eta taldea.

Beheko taula honetan, laburbilduta ageri dira –hiru ardatz horiek oinarri harturik– beldurrak eta tabuak, horiei aurre egiteko balizko estrategiekin loturik.

Tailerrari dagokionez, bereziki interesgarria izan zen puntu hau: hasieran, identifikazioaren atalean, ez zen asko nabarmendu genero-erlazioen eta alderdi emozionalaren gaia, baina, aitzitik, estrategiei heltzeko garaian, gai hori azpimarratu zuten taldeek, batik bat, eta horretan aipatu zituzten egiteko eta balizko estrategia gehien, “entitateetan zaintzak lantzeari eta dagoeneko sortuta dauden ESSko makro-egituretan nahiz ESSko makro-egiturak sortzean ikuspegi feminista atxikitzeari dagokionez”.

DEFINIZIOA ETA BARNE-EZTABAIDA

BELDURRAK ETA TABUAK

- Erantzuteko gai ez izatea
- Egitura aski ez izatea
- Zenbateraino garen eraldatzaileak
- Eraginkortasun operatiborik eza
- Eskakizuna
- Noren ordezkari gara?
- Endogamia
- Izaera juridikoa – kooperatiba ez izatea
- Barne-inkohherentziak

ESTRATEGIAK

- Garrantzia prozesuetan jartzea, prozesuei ematea nagusitasuna, xedeari baino gehiago
- Ongi definitzea proiektua, helburuak eta termometro adierazleak
- Gure proiektua asmo zabalago baten baitan kokatuta dagoela jabetzea
- Hainbat aldaketa maila daudela eta horien arteko loturak ikustea
- Publiko zabalari begira hobeto definitzea zer den ekonomia sozial eta solidarioa
- Mundu guztiaren gustukoak izatea ezinezkoa dela abiapuntu hartzea

BIDERAGARRITASUNA ETA FUNTZIONAMENDU EKONOMIKOA

BELDURRAK ETA TABUAK

- Diruaz hitz egitea
- Soldata desberdintasunei heltzea
- Finantza-mendekotasuna
- Zorpetzea
- Prekarietatea
- Aukerak galtzea
- Kapitalismoari loturiko hizkuntza ekonomikoa: merkatua, etekina, enpresaburua, marketina, errentagarritasuna, eraginkortasuna

ESTRATEGIAK

- Ez saiatzea denari erantzuten, aliantzak baliatzea, eskuordetzea
- Ezetz esaten ikastea
- Publiko zabalari begira hobeto definitzea zer den ekonomia sozial eta solidarioa
- Mundu guztiaren gustukoak izatea ezinezkoa dela abiapuntu hartzea

ERLAZIOAK, ALDERDI EMOZIONALA ETA TALDEA

BELDURRAK ETA TABUAK

Barne-erlazioak

- Lidergoak
- Genero-desberdintasunak
- Espazio emozionalak
- Zaintza sarearen galera
- Gatazkak

Beste entitate batzuekiko erlazioak

- Lehia
- Elizarekiko erlazioaren tabua
- Alderdi politikoen instrumentalizazioaren beldurra

ESTRATEGIAK

- Entzuteko espazioak sortzea
- Zaintza batzordeak, partaidetzaren kalitatea bermatzeko
- Erronda emozionalak, mekanismo gisa
- Gizon taldeak sortzea, rolak lantzeko
- Jarraipen espazioak, zaintzei eta generoari buruzko gogoeta eta behaketarako
- Antolakundeen arteko elkarrekiko laguntza, coworkingak
- Lantaldeak sortzea, egunerokotasunean parte hartzerik ez duten pertsonen ekarpenak egin ahal izan ditzaten
- Lantaldeen arteko erlazioak eta komunikazio mekanismoak idatziz zehaztea
- Ez saiatzea denari erantzuten, aliantzak baliatzea, eskuordetzea
- Genero-desberdintasunak eta gatazkak esplizitatzea
- Beste pertsona batzuegan eskuordetzen ikastea, besteei erakustea eta besteak ahalduntzea
- Lanak ikuskatzea, nork egiten duen zer
- Kanpo bitartekaritza, gatazketan
- Ongizatearen auditoriak
- Barne-kontrolako mekanismoak, erabakiak hartzeko prozesuak zaintzeko
- Soziokrazia
- Ospakizunak, afariak, opariak





06

TRANTSIZIOAK MUNDU
IRAUNKORRAGO BATEKO
EKONOMIA BERRIETARANTZ



LANTALDEA:

Andoni Romeo (REAS Nafarroa), Borja Izaola (Sustraiak-REAS Euskadi), Carolina Yacaman (Heliconia), María Vecino (ecoAlternatiba) eta Mirene Begiristain (UPV/EHU).

Petrolioaren gailurrak, klimaren ondoriozko errefuxiatuak edota bioaniztasunaren galera dira erazte eredu orokorrari loturiko makrogaia, eta horiek eragin zuzena dute etxeko ekonomian eta eguneroko ekonomian. Edonola ere, herritarrean erresilientzia handitzen ari da makro arriskuen gainean, hainbat faktoreren ondorioz: aurrezte eta etxean energia eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, hirigintza bioklimatikoan eta bioeraikuntzan oinarritzen den eta ekoizpen industrialaren planteamendu zirkularrarekin orekatua den oinarriaren gainean. Ekoherrixken bitartez, cohousing komunitateen bitartez, kontsumo taldeen eta elikaduraren, energiaren edo hezkuntzaren subiranotasunaren alorreko mugimenduen bitartez ari zaio aldaketa klimatikora egokitze eta bioaniztasuna zaintzeko bideari irtenbidea bilatzen, nazioarteko politika handietatik haratago.

Ardatz horren inguruan elkartuko dira trantsizio komunitarioko esperientziak, zein bere eredu agroekologikoekin, landa edo hiri eremuaren birsorkuntzaren alorrekoekin, edo ekonomia urdinekoarekin; horiek guztiak gai dira maila orokorrean eragiteko, baina tokian tokiko jardunen bitartez.





“Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna” deritzoneko hirugarren printzipioa Iraunkortasun Printzipioa da, eta planteatzen du giza jarduera ororen arrasto ekologikoa murriztea, “ekoizpen eta kontsumo molde iraunkorretarako bidea eginez”. Aurrerapen plural hori ekintza esparru ezin egokiagoa da ulertzeko ardatz honek zer misio duen ESSren ekintzen multzoan eta Bilbon azaroaren 10etik 12ra bitartean egindako Kongresuan. Gainera, seigarren printzipioa, ingurumenarekiko konpromisoari dagokiona, ESSk tokiko eremuarekin duen konpromisoarekin lotzen da, “dimentsio zabalagoetan artikula gaitetzen soluzio globalagoak bilatzeko” ikuspegitik, mikro mailatik eta makro mailara jotzeko, esparru lokaletik eta esparru globalera jotzeko.

Hain zuzen ere, trantsizio mugimenduaren oinarrietako batek dioenez, “pertsona bakoitzak bere kasa badihardu, ez da iritsiko behar bezain urrun; eta administrazio publikoa mugitu zain gelditzen bagara, litekeena da luze itxaron behar izatea ekiteko; hortaz, komunitarioa behar du izan mugimenduak”, hau da, aurrerapen plurala beharko da maila lokaletik globalerantz jotzeko, berehala abiatuta eta arin, urrun iristeko, zentzu guztietan. Komunitate sentipen hori Kongresu guztian zehar sumatu zen, eta, batez ere, 6. ardatzean; baita energia malgu eta iraunkorren ideia ere, zeina oso gogoan hartu baitzuten parte-hartzaileek, energia eredu globalaren analisi kritikoa oinarrituriko hitzaldi eragingarrian nahiz ekologia sakoneko esperientziak ardatz izan zituen barne trantsizioko dinamikan.

Hain zuzen ere, 30 lagun bildu zituen lan espazio trinko horrek –hainbat lurraldetakoak: Japonia, Brasil, Irlanda, Argentina, Madril, Burgos, Andaluzia, Euskadi, Kantabria, Katalunia, Aragoi, Kanariak, Palentzia, Errioxa eta Nafarroa–, eta “Trantsizioak mundu iraunkorrago bateko ekonomia berrietarantz” ardatza edukiz betetzea izan zen haien egitekoa:

“Trantsizioak” diogu, pluralean, asko direlako beharrezkoak eta osagarriak; bere keinuetan apustua egiten duelako eraldaketa ez-iraultzaileko bide baten alde, eraldaketa leun eta pixkanakako baten alde; eta bat egiten duelako ingelesezko kontzeptuarekin (transition), halako eran non ez baitzaio lotzen inongo garai politikori, mugimendu atemporal eta unibertsal bati baizik: beren

inpaktu existentzialak murrizteko konpromisoa hartzen duten giza komunitateen mugimenduari, dagoen guztiaren kontserbazio hobe eta luzaroagora begirakoa helburu harturik, espezie bizi guztiek eta artean jaio gabeko espeziez bizi izateko baldintza optimoak izan ditzaten. Trantsizio mugimenduak permakulturaren printzipioei eta ekologia sakonaren helburuei jarraitzen die: sakoneko auziak, garrantzi handikoak, ongi ulertuko badira esperimentazioa behar dutenak, adibidez, Joanna Macyren obra abiapuntu hartuta Borja Izaolak dinamizatutako bizipen tailerra, baita permakulturatik abiatuta diseinatu eta inplementatu litezkeen ekimenei buruz David Gonzálezek egindako aurkezpena ere.


“Ekonomia berrietarantz”, horiek eskainiko baitituzte belaunaldi aldaketarako bermeak, alde batera utzi dezagun kontsumismoan eta baliabideen xahuketan oinarrituriko eredu ekonomikoa, zeina izan baitzen Kongresuko ardatz guztietan argumentatutako gaia. Ekonomia plural eta osagarriak, lurreko baliabideen trukearen erroak berraztertze, kontuan harturik gizakia lurreko ekosistemetako elementu bat gehiago dela, eta ez kanpo agentea, ez agente bakartu bat. Ekonomia berriak, zeinak uztartzen baitituzte askotariko metodologia eta funtzionalitate espezifikoak, hala nola, ekonomia zirkularrena, ekonomia urdinarena, ekonomia kolaboratiboarena, ekonomia sakratuarena, ekonomia feminista-rena edo ekonomia ekologikoarena. Arlo horri –ekonomia ekologikoari– buruzko esperientziak, UPV-EHUko irakasle eta ikertzaile Mirene Begiristainek elikadura subiranotasunera aplikatutako kasu lokalen ikerketa akademikoaz egindako aurkezpenaren bidez, aukera eman zuen etorkizun hurbileko gauza baliotsuak zirkulatzeke ezinbesteko bideetako bat iragartzeko.

“Mundu bat”, planeta bat, Kongresu honetan parte hartuko dugun aurretiko eta ondoreko milaka bizi molderentzako bizi-tokia. Lurra deritzogun gune partekatu hau, ordea, 7.000.000.000 gizakik sortutako presioek zatituta dago. Gizaki horietatik 4.000.000.000 inguru hirietan bizi gara, lurra, lurpea eta gainerako airea fagozitatuz. Beste 3.000.000.000 gizakiak, berriz, nekazariak, herrikoak edo, besterik gabe, pobreak deritzegunak, elikadura industriari loturik bizi dira, baina, paradoxikoki, elikadura industriak elikatze funtzioa behar bezala betetzen ez duela. Gabriela Vázquezek Plataforma Rural taldeak gauzatutako

esperientzien berri eman zuen, eta sortu dugun dualtasun faltsu hori gainditzeko landaren eta hiriaren artean zer-nolako erlazioa beharko litzatekeen azaldu zuen. Aurrerago, gai horri berari buruzko elkarrizketa bat koordinatu zuen. Ez dago administrazioa beste mugarik: landa eta hiria, lurralde prozesu beraren bi aurpegi besterik ez dira.

“Iraunkorra”, adjektibo dagoeneko erruz erabilia eta kolore berdeko moda bihurtua, baina oraindik biziki baliagarria egiteko eta izateko modu berritzaileak, inspiratzaileak eta motibagarriak deskribatzeko. Energiaren auzia funtsezkoa da puntu honetan, eta energia trantsizioek dute, hain zuzen ere, aukera-balio gorena, etengabe hizpide dugun aldaketa hori abian jartzeko: erregai fosilak ahitzeak iraultza soziokultural erabatekoa eskatzen du. Kongresuaren hasieratik aurkeztu ziren energia subiranotasunari loturiko zenbait kasu –hurbilgokoak batzuk, urrunagokoak beste batzuk–, baita energia subiranotasunak kliman, sozioekonomian eta belaunaldien jarraipenean dituen eragin positiboak adierazten dituztenak ere. UPV-EHUko irakasle eta ikertzaile Ortzi Aki-zu ingeniariak oso kasu didaktikoak azaldu zituen iraunkortasun energetikoari buruz, eta ardatzeko proposamen globalaren sintesia eta abiapuntua izan zirela esan daiteke: iraunkorrak izatea gizabanako gisa, gizarte gisa eta munduan aldaketa bideratzeko bokazioa duen agente gisa.

**Banakako askatasun
eta kontzientzia
ariketa gisa
egindako keinu
txikiekin hasten dira.**



Publikoak etengabe parte hartu zen 6. ardatzean, eta eztabaida irekia sortu zen, auzi funtsezko, zeharkako eta helmen handikoei buruz, hala nola:

Zer ondorio izan ditzake klima-aldaketak? (kontuan harturik atmosfera ez dela dagoeneko jaisten CO2 400 ppm-tik, orain dela milioi bat urtetik hona lehenengo aldiz); nola gainditu gosea, behin betiko? (kontuan harturik 7 mila milioi lagunentzako elikagaiak sortzen direla, eta badakigula horiek noranahi nola banatu); nola sustatu izaki bizi guztien osasun integrala? (jakirik gure esku dugula behar adina eza-gutza eta kostua-irabazia analisi positiboa); zer egiteko bete behar dugu bidezko erlazio globalak eraikitzeko? (kontuan harturik dagoeneko baditugula aukera eta eskubide berdintasunari buruzko legeak nahiz aukera eta eskubideak gauzatzeko mekanismoak).

Era berean, ardatzari buruzko eztabaidak bidea eman zuen iraunkortasunari loturiko irizpide, adibide, kopuru eta argudio zehatzak barneratzeko:

Noiz gainditu dugu petrolioaren goreneko muga?; nora doaz ekonomia kontsumistaren hondakinak?; zer egiten du nekazaritza-elikadura industriak, animalia proteinen iturriekin, haien bizitza erabilgarria agortzen denean?; zer egoeratan gelditzen da lurra, emankortasunari dagokionez, monokultibo industrial estentsiborako erabili ondoren?; nork xurgatzen du amortizatu gabeko azpiegituren zorra?; zenbat lanpostu sortzen ditu nekazaritza ekologikoko etxalde familiar batek?; zenbat denbora behar du lurzorua esku-hartze permakultural eta erabilera holistikoko bat lehengoratzeko?; nola nabarmentzen dute osasunaren hobekuntza Via Campesina deritzonarekin bat egin duten pertsonek?; zer egiteko ahalmena du bioingeniaritzak klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko?; zer trantsizio-ekimen ari dira erresilientzia eta ekonomia lokala sortzen?; zenbat murriztu daiteke norberaren arrasto ekologikoa, bizi kalitateari eutsiz?; eta, biztanleria aldaketa adierazgarriak kontuan hartuta, zer eragin izan dezake bizi estilo ez-kontsumista baterako trantsizioak?; esporta liteke ekoherrixken eredu hirietara?; nola bete litezke -lagatzeen eta zaintza mekanismoen bidez- landa-eremuan gelditu diren lurralde handi hutsak?; eta beste hainbat galdera.

Zehatzago, nazio kontsumitzaileek egiten duten nazio ekoizlee-tatik inportatutako energia kontsumo ezutuak kontabilizatzeko oinarritzko ideiaz gainera, ideia hauek proposatu ziren, besteak beste, Ortz Akizuren hitzaldian izan zirenentzat trantsizio irisgarri modura, modu kolaboratiboan landutako posterren bidez:

- ▶ Birlokalizatzea (kontsumo ondasunen ekoizpena).
- ▶ Produktuen kontsumoa murriztea (desazkundearen eta baliabideen eraginkortasunaren ikuspegitik).
- ▶ Generazioa (elektrikoa) sustatzea, iturri berriztagarriekin batera.
- ▶ Talde txikien bidez sustatzea ekoizpena, banaka sustatu ordez.
- ▶ Zaborretara botatuko jakiak berreskuratzea (munduan ekoizten diren elikagai guztien %40 dela salatzen eta hondakin horiek birbideratzeko!).
- ▶ “Facebook gutxiago, eta plaza gehiago” aldarrikatzea, benetako harreman soziala berreskuratzen.
- ▶ Berrerabil daitekeen guztia berrerabiltzea, “zaharkitzapen programatuaren” kontra.
- ▶ Etxeko erremedioak egitea (xaboia, marmelada, etab.).

**Komunitarioa
behar du izan
mugimenduak.**



- ▶ Astean isiltasun egun bat egitea.
- ▶ Haragi gutxiago (jatea) (izan ere, biztanleriaren %25 soilik elikatzen du, eta landutako landare elikagai guztien %75 kontsumitzen du!).
- ▶ Tokiko elikadura sustatzea eta erraztea (hiri-baratzeekin, kontsumo taldeekin, etab.).
- ▶ Nekazaritza-ekologiaren eta ekonomia solidarioaren munduak uztartzea.
- ▶ Herritarren ahalduntzea laguntzea, trantsizioarekin bat egin dezaten.
- ▶ Mitoak deuseztatzea: alternatiboa denaren eta ezarria denaren mitoak.
- ▶ Etxea isolatzea (berokuntzan energia gutxiago kontsumitzeko).
- ▶ Autoa gutxiago erabiltzea (petrolio gutxiago kontsumitzeko eta solidaritatea sustatzeko).
- ▶ Zenbait ideia birkontzeptualizatzea; esaterako, kontsumoa zorriona dela dioen ideia.
- ▶ Ekonomia zirkularreko proiektuak hedatzea.

Gabriela Vázquezek eta Plataforma Rural taldeak Lurraren esku-agarritasunaz/landaren eta hiriaren arteko erlazioaz emandako hitzaldian eta hari buruzko elkarrizketan, lurraldeek iraunkortasunerako jauzia egiteko gako sorta bat proposatu eta lehenetsi zituzten parte-hartzaileek, modu kolaboratiboan:

- ▶ Inkubagailu gisako espazioak eskaintzea nekazaritza-ekologiaren arloko ekoizle berriei.
- ▶ Lurren eskaintzaren eta eskariaren arteko lotura eta uztarketa bideratzeko mekanismo bat ezartzea, lurra landu nahi duten edo nekazaritzako lanak egin nahi dituzten pertsonak elkartuta.

- ▶ Lurra merkatuaren balioetatik askatzea.
- ▶ Lurrak eskuratzeko erraztasunak ematea, gazteei eta emakumei bereziki, Lurzaindia eta Terre de Liens ekimenek abian jarritakoen antzeko ereduaren bidez.
- ▶ Diskurtso hau espazio konbentzionaletara hedatzea eta nekazaritza-ekologiako prestakuntza sustatzea.
- ▶ Nekazaritzarako lurra babesteko kudeaketa tresnak proposatzea, baita FAOren jabetza arduratsuko borondatezko irizpi-deak ere, edo erregistro publikoko sistema pribatuak (sistema fiduziariora).
- ▶ Nekazaritza Politika Erkidearen (PAC) laguntzak ebazteko gizarte eta ekologia ikuskapenak egitea.
- ▶ Lur bankuak sustatzea, lagatze formuletan oinarrituta, eta lagatuko/lagatzeko orubeak mapatu daitezkeen sustatzea.

Oro har, iritzi nagusia zen mundu iraunkor batean ekonomia berrietarantzko trantsizioa bideratzeko abiapuntuak banakoek askatasun eta kontzientzia ariketa gisa egindako keinu txikiak direla: norberaren osasunaren eta elikaduraren aldeko keinu txikiak, lehenik eta behin. Aldi berean, ordea, gizabanakoa ohartzen da harreman askoz ere atsegingarriagoak izan daitezkeela: harreman batzuk, zeinetan ez baitu inork ezer ere galduko, ez baitu inork inor galduko; aitzitik, harreman batzuk, zeinaren bidez sortuko baitira pertsonak erresilienteak egingo dituzten komunitate sare berriak. Prozesu horrek aurrera egin hala, berehala hartuko du bizi estiloak iraunkortasunerako joera, zein bere egoeratik abiatuta eta guztiek bat eginik Bizitzarantzko bidean. Lurra aliatu modura ikusten da, orduan, eta lurren zaintza, eskala txiki nahiz handian, giza komunitatearen eta haren euskarri ekosistemaren arteko erlazioa bihurtzen da. Lurraren gaineko elkarrizketa Lurra-rikiko elkarrizketa bihurtu zen.

Modu espontaneoan, 6. ardatzeko parte-hartzaile batzuk RE-love-ution eta ConsumaCoscienza.org ekimenek bideratutako espazio irekian elkartu ziren, zeinetan proposatzen baitzen

kolektibo gisa topo egingo genuela, topaketa pertsonaletik abiatuta. Prozesu irekia eta arrakasta handikoa izan zen: aretoaren atean, etengabe hartu zituzten parte-hartzaile berriak topaketak iraun zuen denboran zehar, aulkirik gabe gelditzeraino; azkene-rako, 80 lagunetik gora elkartu ginen! Espazio horrek prestatu zuen ostiral arratsaldeko azken dinamika, trantsizio mugimenduan erabilia, zeinak dakarren Lurrarekin eta Bizitzarekin (biak ere letra larriz) banako gisa nahiz kolektibo gisa bat egitea, eta ahalbidetzen duen, horrela, lehen urratsak egitea pertsona bakoitzak zenbait ohitura iraungaitz alde batera uzteko eta atzean utzitako erlazio, trukeak eta arrastoak berritzeko baliabide berriak barneratu izana ospatzeko egin beharreko barne trantsizioan.

Joanna Macyk bere lanaren partaide egin gintuen: ekologia sakonaren sortzailea da, eta haren liburuak eta obra bereziki inspiratzaileak dira, eta eraldaketa osagarria bideratzen dute, kontzientzia hartzetik, ikaskuntzatik eta esperientziatik haratago, bizitzako funtsezko izakiei ahotsa emateko prozesu sinple baina maiz alboratuaren bidez: ahotsa emateko etorkizuna adierazten dutenei (oraindik jaio gabe daudenei), giza esperientziaz guztiz bestelako esperientziak adierazten dituztenei (beste espezie batzuetako izakiei) eta bizitza molde guztien integrazioa adierazten duenari (Gaiari, Lurraren inteligentziari). Beste parte-hartzaile batzuen auzi errealez mintzo ziren ahots horiek.

Jarraian, dinamika horren amaieran egindako adierazpenetan esandako esaldi batzuk (ahotsen arabera) bildu ditugu, trantsizio iraunkorreko prozesuari ekiteko eta hari eusteko funtsezko esperientzia gisa harturik –bizipenen bidezko ikaskuntza, ez-arrazio-nala–:

“Jaio gabeko haurrari ahotsa jarri nionean, sentitu nuen...”

... zoriontasuna, ezintasuna, zailtasunak, aterako naizela, arazoak urruneko kontua direla eta ez direla garrantzizkoak, atenporaltasuna, sarbide unibertsala, linbo hotela, etorkizuna, dena ongi doala, don't worry, iritsi eta lekua kendu didatela ikustearen amorrua, den-dena hautematen duen antena bat...”

“Beste izaki bati ahotsa jarri nionean, sentitu nuen...”

... errazagoa zela ez-jaioa izatea baino, ariketa enpatikoa. Animalia gisa, biktima izatea; zuhaitz gisa, konektatuta egotea, perspekti-baz, giza denbora erlatibizatuz; hegazti gisa, libre, sinplifikatzaile; espezie batzuk espezifikatuz zihoazen, partekatu ahala, laguntza ñabartu ahala; tximeleta beldar gisa, injustizia; oilo gisa, zorionsu, hainbeste aukeraz gozatzeko aukera izateagatik...”

“Gaiari ahotsa jarri nionean, sentitu nuen...”

... bikain, neu izaten jarraitzen dut, aukera guztiei eutsiz, gizakiak hutsaren hurrengoa dira; gaixo, bakarrik, ezgai, disfuntzional; zikin, zikinduta, erasota; tumorea banu bezala, nire zelulek gelditu egin behar dute; sendatzea nigan dago, autoimmunitatea; denari aurre egin diezaikedala, baita txar guztiari ere, dena igaroko da; dena ari da maila globalean zirkulatzen; ama babeslea, “begiratu niri, jakiteko”; ahaltsu, magiko, kontziente, biltzaile; eskerturik, nitaz kezkatzen direlako; gizakiak, beraiek bakarrik, ezer ez direla; errukia, azken 400 urteetan egiten ari zireten guztia egiten ari zaretela ere, itxaropena dut; berriro konektatzen duen lana...”

“Aurreko guztia alderatzen dudanean nire diskursoarekin eta nire gauzeekin...”

... nire ekintzei buruz pentsarazten dit, birpentsarazi egiten dit; biltzea, argi ikustea; bizigarria da; kendu, partekatu erantzukizuna; deskargatu; sendotu; “egin” esaten dit, eta egin egiten dut; eskema osoagoa itzultzen du; nire arazoak ez dira hain bitalak, hutsaren hurrengoa baizik; adierazten laguntzen du; berretsi egiten digu errealitate komunak ditugula, aurrera egiteko adoretzen gaitu, erraza dirudi ekinez gero...”



Parte-hartzaileengan eta Europako mila ekimenetatik penintsulan garatzen ari diren ehun trantsizio ekimenetan aktibo jarraitzen duen zerbait hemen amaitzeko, gogorazi beharra dago:

- ▶ ez dagoela zertan eragin iraultza desegituratzaile bat; aski da bidea lasai baina erabakimen osoz egitea, iraunkortasunari eta ESSri buruz azaldutako eredia jomuga harturik;
- ▶ eskuragarri daudela diseinurako (permakultura) beharrezko tresna guztiak, ondasunen birbanaketa (ESS) eta oinarritzko bitartekoen subiranotasun partekatua (komunitatetik);
- ▶ aldaketa asko agertuko direla, baina bi direla funtsezkoak: barnekoa, indibiduala, eta kanpokoa, norberak norberarenaz beselakoarekiko uztarketa eta irekitasunarena;
- ▶ biodibertsitatea eta entrenamendu komunitarioa ezinbesteko gakoak direla tokiko ekosistemen erresilientzia berreskuratzeo eta kokatzeko;
- ▶ ezinbestekoa dela energia fosilak murriztea, eta horrek ez dakarrela bizi kalitatearen murrizketa, baina bai kontsumo ez-bitalen eskariaren murrizketa drastikoa;
- ▶ elikaduraren eta osasunaren gaineko kontzientzia eta erantzukizuna indar handiko bi helduleku direla iraunkortasunerako trantsizioari begira, alderdi guztietatik begiratuta.



MANIFESTUA



Kongresuaren ardatz bakoitzean, hiru saioetan zehar landutakoa laburtzen zuten 3 ideia nagusi aukeratu ziren. Ideia hauek, kongresuko itxiera ekitaldian irakurritako manifestuan bildu ziren.

Jarraian, manifestu honen edukia:

2016ko azaroaren 12an, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren II. Kongresuan Bilbon elkarturik, WEkonomia sozial eta solidarioaren hedatzea. Ekonomia eraldatzeko garaia da!” goiburu dugula, honako indar-ideia hauek nabarmendu nahi ditugu:

1. ARDATZA. EKONOMIA INKLUSIBO ETA DEMOKRATIKOA

- ▶ Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sare gisa, kalitatezko enplegu publiko nahiz pribatuko politika berria sustatzea, beste gizarte-eragile batzuekin batera.
- ▶ Baliabideen banaketa ekitatiborako nazioarteko fiskalitatea sortzearen eta ezartzearen alde lan egitea.
- ▶ Zaintza duintzearen beharra ikusgarri egiten, komunikatzen eta aitortzen duten ekimenek babes publikoa –hau da, pertsona eta entitate nahiz administrazio publikoen babesa– izan dezaten sustatzea, lanaren kultura berri bat sortzeko.

2. ARDATZA. EKONOMIA SOLIDARIOA IZANGO DA, FEMINISTA BALDIN BADA

- ▶ Aitorturik askotan prozesu mingarrietatik gatozela, uste osoa dugu iraultza egunerokotasunean egiten dela eta etorkizuna geurea dela, dagoeneko etorkizuna eraikitzen ari garelako, orainetik abiatuta.
- ▶ Dibertsitatea ondare komun bihurtzea. Dibertsitateak ez gaitu elkarrengandik urrundu behar; aitzitik, elkarrengan hurbiltzeko bidea behar du izan. Oinarri komunitik abiatuta, dibertsitatea bultzatu behar dugu.
- ▶ Ekonomia solidarioa eta feminista gauzatzen ari da dagoeneko, baina guztion konpromisoa eta ardura behar ditugu gure erakundeak eraldatzeko.

3. ARDATZA. POTENTZIAK ETA MUGAK GAINDITUZ, EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN EHUN PRODUKTIBOAREN ERATZE, GARAPEN ETA ERALDAKETA

- ▶ Hazteak baditu gauza onak, eta dibertigarria da gizalegez lehian jardutea.
- ▶ Konfiantzan inbertsioa egiteak kohesioa dakar, eta errentagarria da.

- ▶ Ideia erakargarri, ireki eta abegitsuetan oinarrituta hazteko modu berri bat bultzatzea, gure egiturak eta bitartekoak gero eta pertsona eta ekimen gehiagoren esku jarritz, hau da, konplizitatea bilatuz eta elkar kutsatuz. Lanak gu eraldatzea eta lana bera eraldatzea da lotura egingo duen elementua.
- ▶ Haize kontra hegan egiteko, hobe da samaldan saiatzeari, elkarri txanda emanez, antzarak bezala.

4. ARDATZA. ONDASUN KOMUNAK ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

- ▶ Jauzi egin behar dugu kontsumo ereduek aldatzetik bizimodu ereduek aldatzera, gizarte eta komunitate loturak sortzera, lurraldearen defentsa egitearekin batera.
- ▶ Tokiko gobernuek eta politika publikoek jardura komunitarioak zilegitzeko, sendotzeko eta eskalako jauziak ahalbidetzeko eskaini ditzaketen potentzialtasunak ikertu behar ditugu, autonomiari eutsiz, betiere.
- ▶ ESSri esanahi berri bat ematea, egunerokotasunetik gizarte-justizian eta iraunkortasunean oinarrituriko irizpideak aintzat hartuko dituzten aldaketan beharra aldarrikatzen duten gramatika berrien bidez.

5. ARDATZA. HERRITARREN BAT-EGITEA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA: EGITURA KOOPERATIBO ZABALAK, ESSREN ERAIKUNTZAN

- ▶ Sektoreko eta sektore arteko elkarrekiko lankidetzaren bidez eta kideko beste mugimendu batzuekin nahiz administrazio-arekin aliantzak sortuz jauziak egiteari eta hazteari beldurrik ez izatea.

- ▶ Egin dezagun lan herritarrekin, eta kontuan har dezagun ikuspegi feminista ekonomia sozial eta solidarioaren makro-egituretan.
- ▶ Atera gaitezen kalera, publiko orokorra erakartzera eta ekonomia sozial eta solidarioak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzu horiek guztiak haren esku jartzera.

6. ARDATZA. TRANTSIZIOAK MUNDU IRAUNKORRAGO BATEKO EKONOMIA BERRIETARANTZ

- ▶ Ohituen arloan trantsizio pertsonala egitea, kontsumo gutxi-asko konpultsiboa alde batera utzi, eta bizia duen ororen arteko elkarrekiko zaintzari ekinez, jabeturik jaso eta trantsizioan zehar guztien artean iraunarazitako oparotasunak merezi duela kontsumitzailearen pribilegioak galtzeak dakarren nahigabea.
- ▶ Elikadura trantsizioari heltzea, ezjakintasunez elikatzetik elikadura subiranotasunera jauzi eginez; ziklo guztian parte hartuz, hasi lan agroekologikoetatik eta hondakin organikoen konpostera, eta giza osasunarentzako eta ekosistemarentzako onurak agerian utziz.
- ▶ Trantsizio energetikoari heltzea; erregai fosilak xahutzetik modu lokalean ekoitzi eta banatutako energia berriztagarrian oinarrituriko iraunkortasunera jauzi egitea, askatasunez, modu kontzientean eta arduraz gauzatuz energia kontsumoaren murrizketa, esparru pertsonal guztietan.

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN II. KONGRESUAREN AMAIERA EKITALDIKO HITZAK

► Carlos Askunze
(REAS Euskadi eta REAS Sareen Sarea)

“Jardun ezazu izan nahiko zenukeen moduan, eta jarduten duzun moduko ia izango zara laster”. Kongresua hasi zen egunean bertan zendutako Leonard Cohen maisuak utzi digun aipu bikainetako bat da. Hain zuzen ere, dagoeneko abian ditugun banakako ekintzek eta, bereziki, talde ekintzek gero eta hurbilago jartzen gaituzte izan nahi dugun moduko pertsonak eta mundua izatetik. Izan ere, ezin dugu amets hutsetan oinarritu eta horiek bete zain gelditu. Ametsetan eta itxaropenean bildutako utopia funtsezkoa da eraldaketak bideratzeko, jakina; baina ekin egin behar dugu, utopia horiek egia bihurtu daitezzen. Ekintza erradikalak, militantek, solidarioak... behar ditugu. Ekintza eskuzabalak, alaiak, samurrak, maitekorrak...

Hain zuzen ere, hiru egun hauetan partekatuko ditugunen moduko ekintzak. Dagoeneko hedatzen ari den ekonomia sozial eta solidario baten baitako ekintzak, ekonomia bat zeinak, esan dezagun konplexurik gabe eta anbizioz, aurre egin nahi baitie gaur egun kapitalaren eta haren etekinen izenean besteren mina, injustizia eta bizitzaren suntsipena eragiten dutenei, espazio ekonomiko, sozial nahiz politikokoan duten gailentasuna kolokan jarri.

Dirudienez, orain dela 66 milioi urtetik gora, meteorito handi batek gure planetarekin talka egin, eta dinosauroak desagerrarazi zituen; haien erakusgarri bat dugu eraikin honetako terrazan bertan, 21 metroko luzera eta 7 garaiera dituen dinosauro eskeleto bat. Narrasti sauropsido hori gure ekonomia, politika, kultura eta, zoritxarrez, gure bizitzako gainerako eremu gehienak menderatzen dituen kapitalismoaren metafora bikaina da. Piztia bat, hezur

huts dena eta aspaldi desagertua behar zuena. Izan ere, nola li-teke indarrean jarraitzea sistema horrek, pertsonekin bidegabea, herriekin biolentzia, emakumeekin patriarkala, planetako baliabideen harrapakaria eta hainbeste zorigaitz eta ondoez eragiten dituen?

Agian, gure ekintzak, Cohenek aipatzen zituenak, ekonomia sozial eta solidarioarenak, planeta guztian barreiatutako emantzipazio mugimenduen ekintzak... garrantzizkoak, balio handikoak eta gero eta esanguratsuagoak izan arren... ez direlako aski oraindik. Hedatu gara. Dagoeneko, errealitatea gara, alternatiba baino gehiago. Baina beharrezkoa da eraikin honetan presio-eltze batean bezala kontzentratu dugun energia horrek guztiak eta, batez ere, egunegun hainbat ekimen ekonomiko alternatiboren bidez sortzen dugunak mundu osoan milaka eta milaka lagun bihotza, burua, eskuak eta oinak kutsatzea. Energia aski zabaltzea, kapitalismo eskeletiko hau amaiazteko behar den konjuzazioa ahalbidetzeko.

Kongresu honetan parte hartu duzuen 450 lagunek kolorez eta goxotasunez bete duzue topaketa hau. Borroka, lana eta maitasuna gainezka. Utopiak nahiz errealitate oso errealak, oraindik ere baden arren errealitate horiek modu interesatuan ezkutatzen saiatzen denik. Denek parte hartu duzue aktiboki ardatz tematikoak lantzen eta ondorioak ateratzen. Baina, gainera, zuen erdiek-edo, 200 bat lagunek, Kongresua prestatzen eta garatzen lagundu duzue: ardatz tematikoak diseinatu dituzue; hitzal-diak emanez zuen jakintza edo esperientziak partekatu dituzue;

partaidetza tailerrak, elkarrizketak edo topaguneak dinamizatu dituzue; talde eragilearen baitan eta REAS Sareen Sarearen Kontseilu Federalaren laguntzaz Euskaditik prozesu guztiari logika ematen saiatu zarete. Zuekin batera, ekonomia solidarioko enpresak beharrezko zerbitzu hornitzaile huts baino askoz gehiago izan dira; emakumeek, bai, emakumeak baitziren guztiak, lan boluntarioa eginez hiru egun hauetako logistikari eutsi diote; etxe honetako teknikariek gure etxean bagina bezala sentiarazi gaituzte; eta, jakina, ezin aipatu gabe utzi REAS Euskadin lankide dudan talde maitagarria. Pertsona horiei guztiei, zuei guztiei: eskerrik asko, bihotz-bihotzez. Eskerrik asko; zuen ekintzek hobeak egiten gaituzte, izan nahi dugun hori izaten laguntzen gaituzte. Hobeak, bizigarriagoak eta atseginagoak egiten dituzte ekonomia eta gure mundua.

Munduko ipuin laburrenetako batean, zera kontatzen digu Augusto Monterroso guatemalar idazleak: “Esnatu zenean, han zegoen dinosauroa artean”. Gure irrika da bihar, esnatzen zaretenean, dinosauro kapitalistak han jarraitzen badu, gutxienez txikiagoa izatea eta hain izugarria ez izatea. Jarraitu borrokan, elkarrekin lanean eta elkar maitatzen, egunez egun. Jarraitu gauero amets politak egiten, Martak gomendatu dizuen bezala. Eta, horrela, denborak aurrera egin ahala, gero eta txikiagoa egingo da dinosauroa, harik eta egun batean desagertzen den arte... Eta ez itxaron egun horretara arte irribarre egiteko. Egin irribarre orain. Gozatu, dagoeneko ari gara-eta ekonomia eraldatzen. Eskerrik asko!



**Ekin egin behar dugu,
utopia horiek egia bihur
daitezten.**



KONGRESUA ZENBAKITAN

Parte-hartzaileen profila

- ▶ 446 pertsonak izena eman zuten (%53,8 emakumeak)
 - ▶ Etorri ziren pertsonen %52,5 Euskaditik zetorren. Gainerako %47,5 Madril, Katalunia, Kanariar Irlak, Aragoi, Valentzia eta Andaluziatik zetorren. Japonia, Ekuador, Frantzia, Brasil, Italia eta Herbehereen nazioarteko presentzia ere nabarmentzekoa izan zen.
 - ▶ %46,5 REAS Red de Redes-eko erakundeak ziren eta parte-hartzaileen %18 REAS Euskadikoa zen.
 - ▶ 347 pertsona gizarte-erakundeetatik zetorren (%50,7 euskal herritarrak), 45 administrazio publiko eta talde politikoetatik (%48,8 euskal herritarrak), 10 euskal herriko sindikatuetatik, unibertsitate publiko edo pribatuko ordezkarietako 30 pertsona (%60 euskal herritarrak) eta 14 pertsona inongo elkarterik ordezkatu gabe hurbildu ziren.
- ▶ 18 emakumek eta 6 gizonak aurkeztu zituzten ardatz tematikoen bi lehen lan-saioak ardatzu zituzten 6 hitzaldi motibatzailerik eta 19 esperientzia inspiratzaile. Sorkuntza kolektiborako 6 tailer, ardatz tematiko bakoitzeko bat.
 - ▶ 18 pertsonak parte hartu zuten (%66 emakumeak) 3 osoko bileratan eta esparruari buruzko 4 hitzalditan
 - ▶ 2 aldarrikapen-akzioak: “Egun horia: Ekonomia Solidarioa, mugak apurtuz. Ongi etorri errefuxiatuak!” eta “Egun morea: Ekonomia Solidarioa, emakumeen aurkako indarkeria guztien kontra”
 - ▶ 7 topaketa meeting espazioan
 - ▶ Era espezifikoan tratatzen ez ziren gai desberdinetan kongresuaren ardatzetan zentratutako 6 elkarrizketa
 - ▶ #ESSKutza espazioan ESS-aren hedapenaren 10 esperientzia aurkeztu ziren. Emakumeek esperientzia hauen %50 aurkeztu zuten.
 - ▶ Kongresuaren ospakizunean zeharreko Bizkaia Aretoa-ren halleko Collage batean adierazitako 120 esperientzia.
 - ▶ 230 pertsonak parte hartu zuten kongresu-itxiera jaian.

Garatutako Jarduerak

- ▶ 25 pertsonak osatutako 6 lantaldek definitutako 6 ardatz estrategiko (%56 emakumeak)



Komunikazioa

- ▶ Guztira, 43.661 mezu elektroniko bidali zaizkie 16.661 pertsonari, kongresuari buruzko informazioarekin, era berean sarean sareko REASetik kongresuko gaiari buruzko buletina 27.700 pertsonari bidali zaie.
- ▶ Kongresuari buruzko publizitatea jarri da idatzizko 7 hedabidetan.
- ▶ Hedabideetan 15 agerpen erregistratu dira; gizarte erakundeetako buletinetan, 9, eta webguneetan, 45.



Egin dezagun!

